


ESTIBAUS


ALTZAKO HISTORIA MINTEGIAREN buletina - 53. zenb. / 2023



Carmentu, 1969tik



La Palmera desde 1972



Peñuelo 1971tik



ZM desde 1978



www.estiba.us.info



Altzako
Historia
Mintegia

AHM

ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA
Herrera pasealekua 58-A. 2017 ALTZA
(+34) 649 496 607
ahm@altza.net
www.altzanet.eus

ESTIBAUS
2023
53. zenbakia

AHMko batzordea:

ANTXON ALFARO
RAFA ALTUBE
IÑIGO LANDA
MARIBEL MANZANO
SAIOA PAULIS
JON SERRANO

Azaleko argazkia: KARMENTXU,
LA PALMERA, PEÑUELO, ZM,
ZUGASTI

Lege gordailua: SS103/97

Fotokonposaketa:

Zirrimarra estudio grafikoa

Inprimaketa: *Leitzarar* grafikak, S.L.

OHARRA / AVISO

Estibaus blogean 2023. urtean argitaratutako 57 sarreretatik 49 euskaraz zein gaztelaniaz irakur daitezke, beste 3 soilik euskaraz, eta 5 soilik gaztelaniaz. Paperean, ordea, leku faltagatik, artikuluz guztiak hizkuntza bakarrean jarri ditugu, eta blogean beste hizkuntzan ere irakurtzerik baldin badago dagokion izenburua gehituz adierazi dugu.

De las 57 entradas publicadas en el blog Estibaus en 2023, 49 se pueden leer tanto en euskara como en castellano, 3 solo en euskara, y 5 solo en castellano. Por cuestión de espacio, aquí las hemos publicado solo en uno de ellos, añadiendo la traducción del título en los casos que cuenten en el blog con la versión en el otro idioma.

AURKIBIDEA / ÍNDICE

2023an Estibaus blogean argitaratutako artikulua
Artículos publicados en el blog Estibaus en 2023

- 2. TOKIKO BILDUMA / COLECCIÓN LOCAL**
 - Harribitxiak
 - Lehen osasun zerbitzuak Altzan / Primeros servicios de salud en Altza
 - Udaberria
 - Paris baserria / El caserío Paris
 - Ametzagainako hegoaldeko hegala XX. mendearen hasieran / La ladera sur de Ametzagaina a principios del s. XX
 - Oleta eta Buenavistaren antzinako hiru argazki / Tres imágenes antiguas de Oleta y Buenavista
 - Julian Mas Julimasene baserriko jabearen berriak / Noticias de Julián Mas, dueño de Julimasene
- 10. KRONIKA ZAHARRAK / CRÓNICAS ANTIGUAS**
 - Ruiz Balerdi margolaria Herreran / El pintor Ruiz Balerdi en Herrera
 - Udal Hauteskundeak: ALTZAKOAK-Altzako hauteskunde ekimen independentea 2023/05/11 / Elecciones Municipales: ALTZAKOAK-Iniciativa electoral independiente de Altza
 - Duela 50 urte Josu Artetxe hil zen / Hace 50 años moría Josu Artetxe
- 13. IKERKETA / INVESTIGACIÓN**
 - Altzako lanbide sorta 1934. urtean / El abanico profesional de Altza en 1934
 - Ihitokitik marea-errotara: Maubernet (XVI. mendea) / De juncal a molino de marea: Maubernet (s. XVI)
 - Centaurotik Gazte-Lekura (1): Santa Barbara eta Erroteta / Del Centauro a Gazte-Leku (1): Santa Bárbara y Roteta
 - Centaurotik Gazte-Lekura: jesuitak (2) / Del Centauro a Gazte-Leku: los jesuitas (2)
 - Centaurotik Gazte-Lekura: Familia Buruen Elkarte (3) / Del Centauro a Gazte-Leku: la Asociación de Cabezas de Familia (3)
 - Centaurotik Gazte-Lekura: Celso Vázquez eta erugbia Altzan (4) / Del Centauro a Gazte-Leku: Celso Vázquez y el rugby en Altza (4)
 - Centaurotik Gazte-Lekura: lokala eta izena aldatzea (5) / Del Centauro a Gazte-Leku: cambio de local y de nombre (5)
 - Centaurotik Gazte-Lekura: euskal dantza taldea (6) / Del Centauro a Gazte-Leku: el grupo de bailes vascos (6)
- 24. ALTZANATURA**
 - Naturaldia / Naturaldia
- 25. GANBARA**
 - Ganbara bilduma, 60ko hamarkadara bidaiak / Ganbara bilduma, un viaje a los años sesenta
 - Ganbarako objektuek hitz egiten jarraituko dute / Los objetos de Ganbara seguirán hablando
- 27. LEKUKOAK**
 - Félix Irazo Expósitoaren biografia / Biografía de Félix Irazo Expósito
 - "Aupa Martutene" argazkiaren inguruan / Acerca de la foto "Aupa Martutene"
- 28. TXANGOAK / EXCURSIONES**
 - + 55 Altzatik abiatutako ibilbideak, 2023 denboraldia (martxoa-urria) / + 55 Caminos desde Altza temporada 2023 (marzo-octubre)
 - Jane's Walk Bidebieta / Jane's Walk Bidebieta
 - Excursión molera por la cantera de Sesturri (Treviño)
 - Altzako antzinako bideetan zehar / Por los antiguos caminos de Altza
 - Aurtengo txangoen argazki erreportajeak / Reportajes fotográficos de las excursiones de este año
- 32. NOTIZIAK / NOTICIAS**
 - Zortzi Erregeen Mus Txapelketa, Euskal Giroa 2023 / Campeonato de Mus a Ocho Reyes, Euskal Giroa 2023
 - Donostiako VIII. Boilur Azoka / VIII FERIA de la Trufa de San Sebastián
 - Ekialdeko Barrutiko Batzarrerako hauteskundeak / Elecciones a la Junta del Distrito Este
 - Altza Hadi! eta Euskararen eguna / Altza Hadi! y el Euskararen eguna de este año
 - Altzanet berrieta eta AHMren logo berria / Altzanet renovada y nuevo logo de AHM
 - Altza 2024 egutegiaren aurkezpena / Presentación del calendario Altza 2024
- 35. KRONIKAK (EGUNGOAK) / CRÓNICAS ACTUALES**
 - Santa Ageda, Kaldereroak / Santa Ageda, Kaldereroak
 - Aurtengo Batzarra / La Asamblea de este año
 - Euskal Giroa Mus Txapelketa / Campeonato de Mus Euskal Giroa
 - Kantujira Herreran / Kantujira en Herrera
 - Soka-dantzaren oihutara berreskuratuz / Recuperando la tradición de la soka-dantza
 - Pacorentzat / Para Paco
 - Herrerako harrobien egin nahi duten Zardoya-Otisen proiektuari buruzko bilera / La reunión sobre el proyecto de Zardoya-Otis en la cantera de Herrera
 - Sagardo Egun feminista / Feria feminista de la sidra
 - Herrera Kantuzen kantujira / Herrera Kantuzen kantujira
 - Gabonak Herreran / Navidad en Herrera
- 40. IRITZIAK**
 - Atxumaizkogainako mugariaren gaurkotasuna / Actualidad del mojón de Atxumaizkogaina
 - Informe de la presentación del proyecto Zardoya Otis a la Junta del Distrito Este
 - Ekialdeko Barrutia: Sei urteko lana ¿Noruntz goaz? / Distrito Este: Seis años de trabajo ¿Hacia dónde vamos?
 - Discursos ambiguos en las elecciones municipales y forales
 - Zardoya Otis gelditu!!! Multinacional Otis y Ayuntamiento pelotazo urbanístico en Herrera / Zardoya Otis gelditu!!! Multinacional Otis y Ayuntamiento pelotazo urbanístico en Herrera
 - OTIS multinazionala eta Udala: hirigintza pelotazoa Zardoyan (Herrera) / Multinacional OTIS y Ayuntamiento: Pelotazo urbanístico en Zardoya (Herrera)
 - Donostia: Eskizofrenia hirigintzan / Donostia: Urbanismo de esquizofrenia
 - Notas para un debate sobre vivienda en Donostia
 - Altza: etxebizitza gehiago ala etxebizitza gehiegi? / Altza: ¿más viviendas o demasiadas viviendas?
- 49. IN MEMORIAM**
 - Ángel Calvo Barco
 - Iñaki Alkiza, lagun ona / Iñaki Alkiza, un buen amigo
 - Joan Mari Irigoien Aranberri
 - Alberto Rodríguez Bardón
- 51. Memoria 2023**

ESTIBAUS

www.estibaus.info



TOKIKO BILDUMA / COLECCIÓN LOCAL

Harribitxiak

2023/01/09

Luis Mari Flórez Arabaolaza

San Telmo museoaren argazki funtsean arakatzuz harribitxi interesgarri batzuekin topatu gara. Argazkien egileak ezezagunak dira eta denak baserrien argazkiak dira: Ernabido, Moneda, Casares, Arantzuriene eta Intxaurrenondo-aundi, lehenengo biak 1935. urtean eginak eta beste hirurenak 1953an.



Ernabido / Arnaobidao

Horien artean, Ernabido/Arnaobidao oinetxearen fatxada nagusiaren irudia nabarmenduko genuke, orain arte aurkitu dugun bakarra. Lehendik ezagutzen genuen ate nagusiaren xehetasun baten argazkia, Euskonews buletinean argitaratuta, baina ez ikuspegi oso bat, argazki honetan bezala. Ernabido Bidebietan zegoen, Mirakruz Gainatik Herreraruntz jaitsita San Pedrorako bidegurutzean. Baserria 1938. urtean bota zuten, Contadores fabrika eraikitzeko, eta izen bereko baserri berri bat eraiki zen handik gertu, Mendiolaren magalean. Hura ere bota zuten 12 apostoluak eraikitzeko (1964).



Moneda

Ernabido ez bezala, gainontzeko lau baserrien eraikinak gaur egun zutik dira eta argazki zahar hauek haiei buruzko informazio grafikoa aberastera datoz, batez ere Moneda eta Casares baserrien kasuetan: Moneda baserriaren argazkian, Ulia mendia atzealdean duela, bailararen ikuspegi zabala ikus daiteke, eta Casaresean, baserria inguratzen zuen horma eta sarrera nagusia ikus daitezke, lehen aldiz argazki batean.



Casares



Aranzuriene



Intxaurreondo-aundi

Primeros servicios de salud en Altza

Lehen osasun zerbitzuak Altzan (📄)

2023/01/25

Iñigo Landa, Patxi Lazcano

Barberotegi, o Barbotegi, es una pequeña casa de propiedad municipal que se encuentra junto a la pared norte de la iglesia San Marcial. Como su propio nombre indica, fue construida para servir de vivienda del barbero/cirujano/médico a mediados del siglo XIX; la primera mención documentada de la casa es de 1861. Pero para encontrar la primera noticia de la actividad



profesional de un cirujano contratado por el concejo en Altza nos tenemos que remontar cuatro décadas atrás, a hace poco más doscientos años.

El 7 de enero de 1817, el Concejo de Altza arrendó por un año algunas dependencias de la Casa Concejil a Manuel Antonio de Urdangarin, “*unico Maestro Cirujano de esta Población*”. [1]

Según reza el documento, Urdangarin no tenía casa para poder habitar con su familia, y el Concejo, -representado por Vicente Agustín de Casares y Juan Bautista de Alquiza regidores jurados, y Juan José de Añorga, diputado del común, “*los tres la mayor parte de los cinco individuos que componen el Gobierno Económico de ésta Población*”, - le proporcionaron “*la primera habitación de ésta Casa Concejil con su pieza de la Alhóndiga y de las demás que se hallan en el zaguán [...] con el único objeto de que viva en el centro de ésta Población*”. La sala y pieza del Archivo, en cualquier caso, debería poder estar a disposición de los señores regidores Diputados de común y vecinos concejantes.

La renta ascendía a treinta y dos pesos de a cada quince reales vellón, cantidad que debía de abonar al tesorero de la población en dos partes, una el 24 de junio y la otra el 25 de diciembre. José de Parada actuó como fiador de Urdangarin.

Cuatro años más tarde, el 20 de noviembre de 1823, en la casa concejil de Altza, los regidores jurados Juan Francisco de Arzac y Manuel Mateo de Ybarburu, junto con los diputados del común Manuel de Elizalde y Luis de Aduriz, aprobaron un convenio con Manuel Ignacio de Iturbe, “*cirujano con título*”, natural de Azkoitia, para que ejerciera como tal, bajo las siguientes condiciones:

“Que haya de asistir puntualmente y sin excusa ni pretexto alguno a todos y cada uno de los vecinos y habitantes de ésta Población en todas las enfermedades indisposiciones, partos y heridas.

Que por razón de ésta asistencia se contribuirá por cada cocina con un cuartal de trigo, y en defecto de él, con seis celemines de maíz, en cada uno de los años sucesivos.

Que cada visita que haga dicho Cirujano deba llevar por razón de ella real y medio de vellón, y por cada sangría y cura (también) dos reales también de vellón que se le deberán satisfacer irremisiblemente (en cada uno de los años sucesivos).

Y que finalmente deba ser tal Cirujano conducido en seis años contados desde hoy día de la fecha en adelante.” [2]

Todas estas iniciativas llevadas a cabo por el Concejo altzarra están englobadas en un momento histórico en el que la Población de Altza peleó políticamente y judicialmente por su identidad municipal, independiente de San Sebastián, consiguiendo su objetivo por un corto periodo de tiempo, durante el Trienio Liberal, entre 1821 y 1823.

La autoridad municipal altzarra no solo tuvo en ese tiempo que hacer frente a la oposición de la ciudad, también encontró alguna resistencia entre los propios

altzataras, como podemos vere en este caso de la contratación del cirujano.

El 24 de noviembre de 1926 termina en acuerdo un conflicto llevado a los tribunales llevado un año antes que enfrentaba al Ayuntamiento de Altza con un grupo de vecinos que se negaban a pagar la derrama para pagar la contratación del cirujano. [3]

El Ayuntamiento estaba compuesto por Juan Antonio de Arzac Regidor Jurado, Antonio de Alquiza Regidor, Antonio Vicente de Arzac y José Antonio de Bengoechea Diputados del Común, y Tomás Jacinto de Elizalde Síndico Personero. Los vecinos opuestos a la derrama eran: Juan Ignacio de Echarri, Juan Bautista de Ansa, Pedro de Mendiburu, Juan de Arrieta, José de Otaño, José de Barandiaran, Ramón de Otaño, José Mateo de Mendiburu, José Antonio de Mendiburu, José Victoriano de Otaño, José Antonio de Arrieta y Juan Ignacio Lasquibar. Estos pedían que se les *“declarare no estar obligados a contribuir para el salario del Cirujano conducido con el Ayuntamiento, y ser árbitros de valerse en sus dolencias de facultativo o facultativos extraños de su mayor confianza”*.

En respuesta, el Ayuntamiento negó a los demandantes ser partícipes en los productos de los Montes Francos de Urumea, *“mientras que consiguiendo a la obligación de todo vecino y morador a levantar las cargas comunes no se prestaren a contribuir anualmente con a cada cuatro celemines de trigo o seis celemines de maíz para salario de D. Manuel Ignacio Iturbe Cirujano contratado con el Ayuntamiento”*.

Finalmente resolvieron las diferencias *“amistosamente”* acordando un convenio en el que los oponentes se comprometían a pagar lo que les correspondía en los años anteriores y el Ayuntamiento, por su parte, se comprometía a convocarles con *“intervención y voto”* en las elecciones de cirujano que se hicieran en el futuro. En el mismo sentido, los pleiteantes volverían a ser partícipes en los sucesivos repartos de los productos de los Montes Francos de Urumea, y recibirían del Ayuntamiento la parte que les correspondiese en los años que duró el pleito. Las costas fueron pagadas por ambas partes.

[1] Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa, AHPG-GPAH 3/0046, C: 4r- 6r

[2] AHPG-GPAH 3/3475, B: 97r- 98r

[3] AHPG-GPAH 3/0127, A: 328

Udaberria

2023/03/23

- 1 Iritxi zaigu udaberria
aldendu zaigu negua
hodei multzoak lurrindu dira
oskarbi dago zerua
mendi gaintetik gozoro dator
eguzki distiratsua
edertasunez apainduz goiko
baserria ta ingurua



ohi diren bezela huts egin gabe
agertu zaigu kukua.

- 2 Muskildu dira zuhaitzak eta
zelaiak dira loratu
izadiaren haunditasunak
berriro gaitu agurtu
neguko hormak eta elurrak
eguzkiak ditu urtu
hori dela ta latsak ta errekek
urez dira ugaritu
udaberriko mezua emanaz
kukuak digu kantatu.
- 3 Egunsentiro entzuten dira
ta berdin arratsaldean
moko horizko zozoen kantak
baso eta oihanean
aurki enarak egingo dute
kabitxoak teilapean
sanjose lore zoragarriak
sortu dira bat-batean
alaitasuna nabaritzen dut
nire bihotz barreanean.
- 4 Baserritarra bere idiez
alorrean goldaketan
biligarria txorrotxioka
haritz eder baten puntan
gerezionarioak ta sagastiak
ikusten dira loretan
pinpilipauxa han eta hemen
ta karnabak ernalketan
zozo kabia sasi tartean
zozoa uparitzen bertan.
- 5 Udaberriak apaintzen ditu
zelaiak eta basoak
berpisten ditu hil edo lotan
neguan egontakoak
berritzen ditu gure indarrak
odolak eta sueroak
bertozen ditu odol berriak
ta maitatzeko gogoak
udaberriak sendatzen ditu
aberatsak ta txiroak.
- 6 Zelai berdeak lore berriez
jansten hasten direnean
txori alaien txorrotxiok
ta kukua entzutean
baserritarra alor erdian
ereinketan dagoenean
zozo kabiak sasi tartean
ikusten ditugunean
esan genezake udaberrian
gaudela bete betean.



Juanito Garbizu
Aranburu (1935-2020)

Garbizu eta Aranburutar
Juanito (1989)

Paris baserria

El caserío Paris (📷)

2023/06/02

Iñigo Landa, Patxi Lazcano

“Primo de Ribera diktadorearen garaia zen. Apostuak eta idi demak debekaturik zeuden, baita akuilua eztenarekin eramatea. Londres baserriko Esteban, ori nolabait akullua eztenakin zuela, arrapatu guardiak eta amar pezeta munta, eta guardiak:

- “¿De donde es usted?”

- “De Londres.”

- “Donde está Londres?”

- “Alao de Paris.” -*Biak ondoan baitia-*.

Bañan munta pagatuta, libre.” [1]

Paris Garberako baserri txiki bat zen, gaur egun izen bereko landetxe bat hartzen duen orubean kokatua. Hurrengo lerroetan baserri altzatar honen mende bateko historia labur baina trinkora hurbilduko gara, dokumentuetan agertu zenetik XX. mendearen hasierara arte.

Parisi buruz dugun lehen berria 1810eko martxoaren 25ekoa da. Egun horretan, Jose Joaquin de Altunak Francisco de Goicoecheari saldu zion Paris baserria. Bata zein bestea altzatarrak ziren. Salerosketa-eskirituran jasotzen denez, saltzaileak Antonio de Altuna eta Maria Agustina de Zapiain gurasoen etxea heredatu zuen, eta haren lurrak, sagastia eta gainerako jabetzak *Larrachao* (Larratxo) eta Garbera-bea baserrien lurrekin mugarrituta zeuden. [2] Seguruenik Jose Joaquinen gurasoek eraiki zuten baserria Larrachaoko lursail banandu baten gainean. [3]

Paris baserriaren jabe berria, Francisco Goicoechea Echanique (1775-1838), Juaquina Antonia Lizarazurekin ezkondua zegoen, biak Astigarragan jaioak. Altza eta Pasaia artean bizi izan ziren, eta 10 seme-alaba izan zituzten. Goicoecheak oso jarduera aktiboa garatu zuen lurren eta baserrien salerosketan, ariel eta zergen kobrantzan, mailegutan, sagarren salmentan eta beste negozio batzuetan, idazten jakin ez arren. Hauek dira, adibidez, Altzan bakarrik izan zituen negozio horietako batzuk: lurrak erostea Larreandian (1810); fidatzailea Altzako Kontzeju-etxeke errentan (1814); Peruene errota-etxea erostea (1815); Perueneko salmenta, lurren trukea eta erabilera-hitzarmenak (1815); Peruene erroren salmenta (1817); Paris baserriaren salmenta (1821); Migueltegui baserriko sagarraren salmenta (1827); lur gehiagoren salmenta Larreandian (1831); etab.

1821eko apirilaren 25ean, Francisco Goicoecheak Paris baserria salduko dio Francisco de Aramburu Arsuagari. Ezkion jaio zen 1762an, eta Venezuelara emigratu zuen. Han dirutza egin zuen, baina Puerto Ricon ere izan zituen ondasunak. Dominga Antonia Machado caracastarrarekin ezkondu zen, eta bi alaba eta seme bat izan zituzten. Domingak, 1819an hil baino lehentxeago, boterea emango dio senarrari bere izenean testamentua egin eta bien ondasunak administratzeko.



Paris 1980 aldera (Arg.: Rosa Batalla)

Hiru urte igaro ondoren, 1821eko urtarrilean, Francisco Aramburu bigarren aldiz ezkondu zen Donostian María Ignacia Ezponda Ugarterekin (Hondarribia, 1800), eta urte horretako martxoan Garbera-goia etxaldea erosi zuen 92.000 zilar-kobrezko errealean truke, eta hilabete geroago, lehen esan dugun bezala, Paris baserria, 6.500 zilar-kobrezko errealean truke.

Urte horretako abuztuan lehen ezkontzako semea hil zen, eta aita oinordeko bakarra izan zen. Bi alabek Caracasera itzultzea erabaki zuten. Han, amaren aldeko herentzia eta senideak dituzte, eta aitak, bestalde, hainbat etxe, kafe-soro bat eta lurrak eman zizkien, 443.000 zilar-kobrezko errealeko balioa zutenak. Bestetik, 1825ean, lau urte hil aurretik eta agiri publiko batez, Francisco Aramburuk askatasuna eman zion bere zerbitzu onen sari gisa zeukan esklabo beltz bati.

Maria Ignacia Ezpondarekin izandako ezkontzatik bi alaba jaio ziren, Juaquina (Donostia, 1821) eta Maria Dolores (Donostia, 1824), eta bi seme, Jose Manuel Marcos (Altza, 1823) eta Juan Antonio (Altza, 1829). Francisco Aramburu 1829an hil zen, eta alarguna eta seme-alabak Parisen jabetzarekin geratu ziren.

1836an karlisten eta liberalen arteko borroka odoltsua gertatu zen Altzan. Altzan zeuden 152 baserrietatik, 50 erre egin ziren eta 46 erabat suntsitu. Besteak beste, Paris, Larratxo eta bi Garbera erre zituzten [5].

1869an, Francisco Arambururen oinordekoek Maria Sebastiana Ibarburu y Arzac altzatarriari salduko zioten Paris baserria. Salmentaren ekitaldian ez zen egon Juan Antonio, Puerto Ricon bizi zelako, Cabo Rojoren korrejidorea baitzen. [6]

Sebastiana Ibarburu y Arzac (1796-1875) Antonio Alquiza Arambururen (1786-1866) alarguna zen [7]. Larratxo baserriaren jabea zen, eta bertan bizi ziren. Zazpi seme-alaba izan zituzten. Sebastiana Ibarburu hil ondoren, haren seme Francisco Alquiza Ibarburuk (1825-1881) Paris baserria jasoko du amaren herentziaz, eta aitaren herentziaz, berriz, *“Larrachao o Larrachoenea”*, bi baserriak mugakide zirelarik.

Francisco Alquiza Manuela Arzac eta Arrillagarekin ezkondu zen 1854an. Biek testamentu bat erregistratuko dute elkarrekin, eta, bertan, beren bost seme-alabak jaraunse izendatuko dituzte, Magdalena alaba ondasun guztien herenean eta bosgarrenean hobetuz. [8] Dokumentu horretan honela deskribatzen dira Paris eta Larratxo etxeak eta jabetzak:

1º Casería denominada "Paris" con sus pertenecidos, finca rústica, en jurisdicción de la población de Alza, señalada con el número cincuenta y nueve, se compone de piso bajo, uno alto y desván: ocupa de sitio setenta metros, veinte y dos centímetros superficiales y confina por los cuatro puntos cardinales con sus pertenecidos.

Consisten éstos últimos:

En setenta y dos áreas, cuarenta y seis centiáreas de tierra labrantía y manzanal, con inclusión de unas pequeñas porciones de herbales que tiene en los lados intermedios de dicha tierra; Y en ocho áreas, sesenta y nueve centiáreas de tierra erial o inculca que se halla en los lados de la citada sembradía y manzanal con inclusión de la antepuerta.

Confinan ambas porciones por el Oriente con pertenecidos de la Casería "Larrachoenea" o "Larrachao", por el Mediodía con camino carretil público, por el Poniente con pertenecidos de la Casería Garbera-azpicoa y por el Norte con los de ésta misma casería y la de "Larrachao" o "Larrachoenea".

2º Casería denominada "Larrachoenea" señalada con el número sesenta, compuesta de planta baja con cocinas, cuadra y cubería, piso principal con sala, cuartos y lagar de dos husos de hierro y piso desván con cubierta de teja a dos aguas, conteniendo su terreno solar edificado doscientos ocho metros y sesenta y un centímetros cuadrados, finca rústica, radicante con todas sus tierras en jurisdicción de la población de Alza y confinante por los cuatro puntos cardinales con pertenecidos suyos que son como siguen:

Cinco áreas y veinte y seis centiáreas de terreno antepuerta en contornos del solar; ciento doce áreas y noventa y tres centiáreas de terreno labrante en tres porciones; doscientas áreas y noventa y tres centiáreas de terreno manzanal; cuarenta y tres áreas y diez y siete centiáreas de terreno erial argomal en dos porciones; cinco áreas y cincuenta centiáreas de terreno castañal injerto; sesenta y cuatro áreas y sesenta y ocho centiáreas de terreno erial arbolado vario naciente, o sea en junto cuatrocientas cincuenta y ocho áreas y cuatro centiáreas de terreno de las diferentes clases expresadas, equivalentes en medidas antiguas del país a mil cuatrocientas sesenta posturas que contiene el primer trozo confinante por el N. con los pertenecidos de la casería llamada "Migueltegui" de D^a Loreto Sein; por S. con los de la llamada "Paris" propiedad del mismo Francisco Alquiza y un camino carretil público; por E. con la regata denominada Larrachao; y por O. con los pertenecidos de la casería "Garbera-becoa" de D. Juan Esteban Sarasola.

Siete áreas y cincuenta centiáreas de terreno labrante y cuarenta y seis áreas y veinte centiáreas de terreno erial argomal con algún arbolado joven, o en junto cincuenta y tres áreas y setenta centiáreas de terreno de las clases señaladas contiene el trozo segundo, equivalentes en medidas antiguas del país a cinco setenta y dos posturas. Confina por N. con camino carretil público; por S. con los pertenecidos de la casería llamada "Echeverri" de D^a Ursula Obineta; por E. con los de la llamada "Miasua" de D. Juan José Atorrasagasti; y por O. con la regata Larrachao y camino carretil público."

Salerosketa-eskrituren eta testamentuen bidez Paris baserriaren historian barrena egin dugun bidaiaren honetan, jabeak ezagutu ahal izan ditugu, baina ez dakigu ezer, edo ia ezer ere ez, bertako bizilagunei buruz, Paris baserriaren pareko emakume eta gizon xumeei buruz, dokumenturik apenas utzi baitute. Errolden bidez batzuen izenak ezagutu ahal izan ditugu: 1846an Parisen bizi ziren Francisca Urrestarazu eta beste bi pertsona; 1871n Manuel Larrañagaren izena bakarrik erregistratzen da; eta, 1901ean, erroldak bertako bizilagunei buruzko informazio zehatzagoa eskaintzen digu: Parisen bizi ziren Jose Joaquin Genua Michelena eta Sebastiana Yarza Zapiain senar-emazteak, biak Altzan jaiotakoak, 53 eta 51 urtekoak, hurrenez hurren. Gizona hargin lanbidez. Haiekin batera, Hendaian jaiotako seme-alabak: Venancio, 22 urtekoa eta hargina bere aita bezala, Martín, 18 urtekoa eta nekazaria, eta María, 15 urtekoa; eta Donostian jaiotako beste hiru: Bruno, 13 urtekoa eta nekazaria, Teresa, 12 urtekoa, eta Elena, 9 urtekoa. Errolda horretatik bertatik dakigu Magdalena Alquiza Arzac, Larratxo eta Parisen oinordekoa, Pedro Altuna Murua senarrarekin, Gregoria ahizparekin eta 6 eta 17 urte bitarteko lau seme-alabekin bizi zela.

Erreferentziak:

- [1] Manuel Zapiain: "Altza lenago zer zan", in Altza, hautsua kenduz - VI (2001), 51-57 orr.
- [2] Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa, AHPG-GPAH 3/3471, C: 64
- [3] Agustina Zapiain Arrieta anderearen ohar genealogikoak: <https://altza.info/bilduma/pdf/L18099.pdf>
- [4] Francisco Goicoechea Altzako Tokiko Bilduman.
- [5] José Miguel Sánchez: "Altzako baserriak lehenengo karlistadan", in Antzina nº 9 (2010), pp. 43-47.
- [6] AHPG-GPAH 3/2915, A 782r-789v
- [7] [7] Bataioen liburuan Jose Antonio Alquiza Aramburu izen bereko eta filiazio bereko bi pertsona daude erregistratuta, baina bi data ezberdinekin, 1786 eta 1789. Gauza bera gertatzen da heriotzen erregistroan, 1866 eta 1869, baina kasu honetan, baten heriotza-data 1869ko irailaren 16a denez, baztertu egiten da, Pariseko salmenta bere alargunak egin zuen urte horretako maiatzaren 1ean.
- [8] AHPG-GPAH 3/4057, A 395r-426v
Paris baserria Altzako Tokiko Bilduman.



La ladera sur de Ametzagaina a principios del s. XX

Ametzagainako hegoaldeko hegala XX. mendearen hasieran (📷)

2023/06/09

En la exposición fotográfica que presentó la casa de cultura de Loiola en Garbera el pasado abril pudimos ver esta vista general de la ladera sur del monte Ametzagaina y las riberas del Urumea que no conocíamos, una instantánea tomada, al menos, con anterioridad a 1912, año en que se inauguró el puente de Espartxo sobre el río Urumea y el sanatorio de las Mercedes en Uba.

Es una fotografía que, limitándonos a la parte altzarra, nos permite observar a vista de pájaro el entorno de Uba y la imagen de algunos caseríos que existen aún en la actualidad, Espartxo, Plasentzia, Lakiñene, Garrostegi, Ubegi, y otros ya desaparecidos, como Uba-goia y Uba-bea, junto al convento y la ermita de Nuestra Señora de Uba, así como el caserío Anixene. La imagen de este último, a orillas del Urumea, es la única de que disponemos de su aspecto exterior.

Oleta eta Buenavistaren antzinako hiru argazki

Tres imágenes antiguas de Oleta y Buenavista (📷)

2023/06/29

Urte hasieran, Luis Mari Flórezek Ernabido / Arnaobidao, Moneda, Casares, Intxaurren-Zar eta Aranzuriene baserrietako argazki interesgarriak ekarri zizkigun Estibausera, San Telmo Museoko artxi-boan aurkituak. Orain San Telmon gordetako argazki berri batzuk pasa dizkigu, Oletaren bi, guztiz berriak, eta Buenavistaren beste bat. Argazkien egilea Gregorio

González Galarza (Zegama, 1869/ Donostia, 1948) da eta Galarza Funtsaren parte dira.

Argazkien data zehatza ez dakigu. Artxiboko fitxetan Oletaren argazkiak 1913tik aurrerakoak direla jartzen du, eta Buenavistatik Altzagainera doan errepidea eraiki gabe dagoela ikusten denez, 1933a baino lehenagokoak izan behar dute, urte horretan hasi baitziren obrak. Buenavistaren ikuspegiak, bestalde, 1930. urte inguruko data darama. Hemen ere ez da 1933. urtean egin zen errepidea ageri.



Hasierako argazki horretan portuko Cuarta Via etxeak, Oletako Etxeberri-Kosta etxea eta desagertutako Etxeberri-Kosta Txikiya baserria, Miramar ere deitua, ikus ditzakegu. Baserri hori gaur egun Casares pasealekuko Sarita-Enea etxea okupatzen duen orubean egongo litzateke.

Eta beste honetan, Agirrenea eta Maritxalar etxeak ikusiko ditugu, eta ezkerrean, behean, Mirabarkera baserriaren teilatua, Norteko Trenbidea eta Topoko tune-laren sarrera.



Galarzak argazki asko egin zituen postal gisa argitaratzeko. Argazki hau horietako bat da. Ikuspegi orokor horren orijinala San Telmon kontserbatutako kristal gaineko gelatina teknikarekin egina da. Buenavista irudiaren erdian dago. Ezkerretik eskuinera, Portuko Obra Batzordearen Bulegoaren eraikina, Telefonica Konpainiaren eraikina, Buenavistako etxe multzoa, Miramar Etxea, Eskola Publikoak, 1918an sute baten ondoren berreraikutako Llusa upa-ohol fabrika eta portuko biltegien ondoko Cuarta Viako etxebizitzak ikus ditzakegu. Goian, Berraxo, Berra San Antonio landetxearekin batera, eta Mutiozabal landetxea.



Noticias de Julián Mas, dueño de Julimasene

Julian Mas Julimasene baserriko jabearen berriak (📄)

2023/11/11

Iñigo Landa, Patxi Lazcano

Julimasene tiene el valor de ser el único caserío que permanece de los que había entre Herrera y la zona alta de Intxaurrondo, y eso a pesar de no contar con ningún tipo de protección.

Su primera mención documental se remonta seiscientos años atrás, a 1512, con el nombre de **La Floresta**. Esa será la denominación de la casería hasta que hacia 1688 [1] un tal Julián Mas adquiere la casería y esta empieza a ser también denominada, junto con el nombre de La Floresta, como la casa de Julián Mas, o Julimasene, nombre con el que ha llegado a nosotros.

¿Quién era **Julián Mas**? Gracias a que este personaje, directa o indirectamente, se vio involucrado en numerosos pleitos, hemos podido seguirle la pista a través de la documentación conservada en los Archivos Históricos de Gipuzkoa [2].

Además de estar vecindado en San Sebastián, también lo estuvo en Pasai Donibane y en Hernani, en este último tras pleitear con el concejo hernaniarra [3], pleito que ganó gracias a un informe favorable de la Provincia

[4]. En dicho pleito tenemos detalle de sus antecedentes:

“Julián Mas natural de la Ciudad de Lila en los Estados obedientes de Flandes y residente en la Noble y Leal Ciudad de San Sebastián = Dice que habrá diez y seis años vino a estos Reinos de España donde asiste desde entonces continuamente y es hijo legítimo de Pedro Mas e Isabel Parmentier su mujer naturales y vecinos de la dicha Ciudad de Lila = y nieto legítimo por parte paterna de Santos Mas y de Clara Heddebault su mujer naturales y vecinos que también fueron de la dicha Ciudad de Lila = y de parte materna es nieto también legítimo de Joan Parmentier y Joana de Laporte su mujer naturales y vecinos que así mismo fueron de la dicha Ciudad de Lila = y son hermanos legítimos y enteros del suplicante Mathias, Santos y Pedro Jacobo Mas y todos cuatro nobles hijosdalgo notorios de sangre de la antigua familia de Mas de la dicha Ciudad de Lila que ha sido y es de esto de Nobleza y Limpieza de mucha honra y calidad y por tal habida, tenida y comúnmente reputada sin cosa en contra de tiempo inmemorial en la dicha Ciudad de Lila y en todos los dichos estados de Flandes y en las demás partes donde han asistido y ellos y todos sus antepasados han gozado y gozan siempre de la dicha Nobleza de sangre por ser como son de la dicha familia y no por otra razón alguna ocupando cada uno en su los oficios de magistrado y otros de la dicha Ciudad de Lila...” [5]

Este mercader originario de la ciudad flamenca de Lila, actual Lille (Francia), se asienta en San Sebastián en 1675 y se casa con la donostiarra Ana María de Samatelu; tienen dos hijos: Manuela Antonia y Francisco Alberto. La hija se casará en 1717 con Juan Andrés de Huici, natural de Echauri, Navarra.

En 1725, tras el fallecimiento de Ana María de Samatelu, Julián Mas se casará en segundas nupcias con Catalina Pérez de Elizagaray, con quien tendrá una hija, María Teresa.

Julián Mas fallecerá en 1733, y su viuda, un año después, en representación de su hija, pleiteará con la hija de Julián Mas del primer matrimonio por cuestiones de herencia.



La historia del caserío Julimasene ha estado estrechamente ligada a la del molino **Argallo**, incluso formaban una unidad. Estaba situado a escasos 200 metros de Julimasene, en el punto donde se juntan las regatas que descendían de Garbera y Ametzagaina a la bahía, en Herrera. A nosotros Argallo nos ha llegado con el nombre de Fabrika, caserío que quedó enterrado bajo el nudo de accesos a la autopista, en Txingurri. A lo largo de los siglos los conflictos por la gestión del agua entre los molinos de Argallo y el de Peruene han sido una constante y una fuente de información muy interesante, a la que le dedicaremos una atención especial más adelante.

* * *

Referencias:

- [1] 1694-10-12: Probanza de Julián Mas en el pleito entre Miguel de Peredo, propietario del molino de La Herrera (Peruene), y Julián Mas, propietario del molino de Argallao (La Floresta). Archivo General de Gipuzkoa, AGG-GAO COMCI 2378. La fecha aproximada en la que Julián Mas adquirió el caserío La Floresta y el molino Argallo a Mariana de Villaviciosa, la podemos deducir por la declaración del testigo Pedro Ybarra, maestro carpintero que trabajó en la reparación del caserío y del molino cinco años atrás.
- [2] Documentos de archivo del caserío Julimasene en Altzako Tokiko Bilduma - Colección Local de Altza.
- [3] 1688-07-15: Pretensión de Julián Mas, de nación Flamenco, de avecindarse en Hernani. AGG-GAO JDIM 4/9/195 (hoja 3): “Julian Mas mercader Flamenco, ha presentado su Pedimento de Hidalguia ante la Justicia Ordinaria de la misma Villa pretendiendo avecindarse en ella, y ser admitido en sus oficios honoríficos de paz y guerra [...] Julian Mas se halla casado en la Ciudad de San Sebastián con hija natural de ella, donde ha residido, desde que vino de los estados de Flandes hasta hoy, no teniendo dependencia alguna de sangre, ni interés en la dicha Villa de Hernani ni haber explorado su ánimo hasta ahora de querer avecindarse en ella.”
- [4] En el mismo documento, hoja 4, con fecha 1688-07-17: “vive y está casado en la Noble y Leal Ciudad de San Sebastián [...] Tiene facultad libre para poderse avecindar en la república que quisiere elegir [...] puede mudar de habitación siempre que quisiere.”

KRONIKA ZAHARRAK / CRÓNICAS ANTIGUAS



Iñaki Martiarena “MATTIN”: ARKALTZA [1]

Ruiz Balerdi margolaria Herreran

El pintor Ruiz Balerdi en Herrera (🖼️)

2023/02/28

Iñigo Landa

Rafael Ruiz Balerdi (1934-1992) margolari donostiarra euskal arte garaikidearen ezinbesteko erreferentzia artistikoa da. Koadro abstraktuekin lan egiten zuen, behaketa, kolorea eta bat-batekotasun sortzailea oinarri hartuta. [2]

1973an, Donostiatik kanpo urte asko eman ondoren, itzuli egin zen, eta Andoaingo eskola publikoan nahiko espazio handia aurkitu zuen, egiten ari zen tamaina handiko koadro batekin lanean jarraitu ahal izateko. Artistaren eta eskolako haurren artean sortuko den harreman sortzaile estuak esperientzia didaktiko hori Lasarte eta Herrerako eskola publikoetara hedatzera eramango du, bost urtean zehar.

“Al principio no le di demasiada importancia pero luego, en cuanto comencé a ver los primeros resultados del entusiasmo de los chicos, es cuando me di cuenta de que todo aquello podía tener más importancia de lo que yo inicialmente le concedí. La cosa es que seguí en Andoáin y luego en otras escuelas hasta hoy, aquí en Herrera. Ahora, además de pintura hacemos música y danza, materias de las que se encargan otros dos compañeros, y los resultados son tan interesantes como en pintura. Los chavales tienen un gran empuje.” (Punto y Hora de Euskal Herria, noviembre de 1977) [3]

Garai hartan Romualdo de Toledo izena zuen ikas-tetxeko bi ikasleri esker, Arantza eta Lorea, garai hartan zortzi eta hamalau urte bitartekoak, esperientzia haren testigantza zuzenak izan ditzakegu. Marrazkigintzako irakaslea oso ondo gogoratzen dute, “Rafa, el profe de dibujo”, baita klase haiek nolakoak ziren ere. Irakasleek “don” tratamendua jasotzen zuten, baina marrazketa-koa, besterik gabe, Rafa zen. Gizon isila, pertsona ona. Frankismoaren azken urteak ziren, eta baziren eskola berritzeko gogoak zuten irakasleak. Marrazketa-, dantza- eta musika-eskolak antolatu zituzten eskola-orduetan, ikasleak beren borondatez joaten ziren gela espezifikotuan.

Marrazketa-gela bigarren solairuan zegoen. Zabala eta argitsua zen, hiru fatxadetako leihoekin (argazkian, Herrera Ikastetxea kartelaren gainean). Ikastetxearen goiko kokapenak Herreraren gaineko ikuspegi zabalak

eta horizonte zabala eskaintzen zituen. Rafak tailer artistiko gisa erabili zuen gela hori, bere tamaina handiko koadroak landu ahal izateko [4] klasera joaten ziren neska-mutilen aurrean, eta haiekin batera landu ahal izateko. Artistaren iritziz, behaketa eta sormena haurren berezko ezaugarriak ziren, “si pintan es porque tienen las mentes libres.”

Rafak eta ikasleek margotzen ari zen koadroei buruzko iruzkinak trukatzeko zituzten. Loreak gogoratzen duenez, Rafa bere koadro abstraktu batekin ari zen egun batean, harengana hurbildu zen zer marrazten ari zen galdetzera. Artistak galdera itzuli zion, ea zer ikusten zuen hor, atzamarrarekin oihalaren gainean irudizko lerro bat marrazten zuen bitartean, eta, horrela, Loreak imajinatu ahal izan zuen emakume bat haur bat besoetan zuela, artistak koadroa birarazten zuenean ere Loreak sumatzen zuen irudi bat.

Koadro abstraktuekin batera, Balerdik ikasgelan hiru koadro figuratibo, gutxienez, margotu zituen helburu didaktikoarekin, gelako leihoetatik ikus zitezkeen paisaiatik abiatuta. Herrera I.an San Inazio galtzadako etxeak ikusten dira lehen planoan, eta Mendiola eta Jaizkibel urrutian. Herrera II koadroa beste leiho batetik margotuta dago, baina aurrekoaren antzeko orientazioarekin. Eta Herrera III.ak kontrako norabidean begiratzen du, Ramon Vizcainoren fabrikako teilatua aurrean, saihesbidea eta Julimasene aldea erdian dituela.

Bere koadro abstraktu eta figuratiboez gain, ikasgelan pintore klasikoaren koadroak jartzen zituen, eredu gisa erabiltzeko, elkarrizketarako bidea emateko eta haurrak beren sorkuntza pertsonalak egitera animatzeko. Arantzak gogoratzen duenez, egin zuen marrazkietako bat, aitek markoan jarri eta etxeko horman zintzilikatu zuen. Loreari ere gustatzen zitzaion marraztea, batez ere aurrepegiak, eta Rafak beste gai batzuetara irekitzea aholkatzen zion. Baina berari gehien gustatzen zitzaiona dantza klasea zen, non baleta eta dantza mota ezberdinak ikasten zituzten. Irakasleak, Menchu [Medel], inguruko beste ikastetxe batzuetara eramaten zituen dantzatzera, eta animatu zuen trebatzen jarrai zezan eta dantzan jardun zezan, baina familiak ez zuen baliabide ekonomikorik ikasketak ordaintzeko eta bere bokazioa zapuztuta geratu zen.

Herrerako ikastetxeko esperientzia artistiko eta hezitzaile hura 1978an amaitu zen, baina klarionak, argizariak eta papera, material erraz eta merkeak, normalean eskolakoak, ohiko tresna bihurtu ziren Balerdiren ekoizpen artistikoan. Bere ibilbidean mugarri bat izan zen, eta ia hamar urte geroago, 1985ean, Gasteizen, “Así pinta...” erakusketan erreproduzitu zuen. Bertan, zuzenean margotu zuen koadro bat, ekitaldian parte hartu zuen haur talde baten parte-hartze zuzenarekin.

Ruiz Balerdiren eta Herreraren arteko harremana ez zen Romualdo de Toledo ikastetxera mugatu. Artistak eta Jacqueline Sánchez lankideak etxebizitza bat erosi zuten 1984an Terraza-Alde etxean, San Inazio galtzadaren ondoan (Jolastokieta, 19), laneko tailer bihurtzeko, 1992an hil zen arte.

Gabriel Aresti poetak, Balerdiren lagun eta kolaboratzaileak, Herrerako eskolan pintoreak gauzatutako es-

perientzia aitatzten du “Rafa, ez Sanzio, Ruiz Balerdi” poeman:

“Hobeki ikusten da
Herrerako eskola nazionalean
edo
Amezketako ikastolan,
nola bertan ikasten dute
umeek
zer aldi dagoen ferdetik gorriara,
mugimentuen eta masen direkzioa.” [5]

Artistaren heriotza zela eta, Egin egunkariak 1992ko martxoaren 12an Balerdiren argazki batekin ilustratutako orri bat eskaini zion, koadro handi baten aurrean eskaiera batean igota eta ikasleez inguratuta. Orrialde berean, Eduardo Chillidak, “Querido Rafa” izenburupean, margolariaren lanaren *patu ederraz* idatzi zuen: “Tus libros por el suelo en la escuela de Andoain tuvieron un hermoso destino.” [6]

Herrerako hezkuntza-esperientzia hartatik ia mende erdi igaro ondoren, Ruiz Balerdiren lan guztia animatzen zuen espiritu aske eta sortzaileak gidatutako arte ez elitista herrikoiaren ikuspegia berreskuratu dute egungo belaunaldientzat Iñaki Martiarena “Mattin” ilustratzaileak eta azken urteotan Altzako ikastetxe ezberdinetan garatzen ari den Arkaltza proiektuak. Ekimen hori ere margolariaren lanaren *patu ederraren* parte izatera pasada. [7]

Erreferentziak:

- [1] Iñaki Martiarena “MATTIN”: Arkaltza. Autoedizioa, 2021. 2022an bigarren edizio zabaldua argitaratu du. Liburua haurren liburategietan baino ez dago jendearen eskura.
- [2] Erabilitako datu biografiko guztiak eta Ruiz Balerdiren lanaren erreferentziak, hemendik hartuak: VIAR, Javier: Balerdi. La experiencia infinita = *Balerdi. Azkengabeko esperientzia*. Ed.: Sala Recalde, Koldo Mitxelena Kulturunea, 1993.
- [3] Carlos LAREAU: “Balerdi o «atreverse al desastre»”, in: Punto y Hora de Euskal Herria, 1977ko azaroaren 3-9, 22-25 orr..
- [4] Herreran Jardín claro I, II, III, IV. koadroak margotu zituen.
- [5] ARESTI, Gabriel: “Rafael, ez Sanzio, Ruiz Balerdi”, in: Poesía argitaragabea. Azken poesia. Gabriel Arestiren Literatur Lanak - 5. Susa, 1986. Pp. 78-80. Gaztelaniazko itzulpena: Jon Juaristi (Arg.: VIAR..., 13. or.).
- [6] EGIN, 1992-03-12, 45. or., Eduardo Chillida: “Querido Rafa”. Orrialde berean, Rafael Castellano: “Universos de tiza”.
- [7] Beñat ARIZMENDI AMORIZA: Arte garaikidea Iñaki Martiarena “Mattin”-en Arkaltza-n. Haur Hezkuntza Gradu amaierako lana. 2022.

Elecciones Municipales: ALTZAKOAK-Iniciativa electoral independiente de Altza

Udal Hauteskundeak: ALTZAKOAK-
Altzako hauteskunde ekimen
independentea (📄)

2023/05/11
Antxon Alfaro



En las elecciones municipales del año 1999, un grupo de altzataras presentaron una candidatura al Ayuntamiento de San Sebastián, así como a las Juntas Generales de Gipuzkoa. La iniciativa surgió según sus promotores desde el “descontento y desde

el sentimiento de que vivimos en una comunidad olvidada y marginada por el Ayuntamiento de Donostia”.

Según recuerda Justo Gárate, la idea se gestó en una reunión en el local de la asociación de vecinos Elkartasuna (Santa Bárbara). En esa reunión estaban entre otros Albaro Fernández, José Mari Bidegain, Justo Gárate...

Al nuevo partido lo denominaron *ALTZAKOAK-Iniciativa electoral independiente de Altza*. El 28 de abril de 1999, Albaro Fernández y Dani Garcíandia lo inscribieron en el Registro de Partidos Políticos en Madrid. Como presidente estaba Justo Gárate, el vicepresidente era Fernando Zamorano, José María Bidegain el tesoreiro y Albaro Fernández el secretario.

Una vez realizado el registro se coaligaron con el grupo *Berdeak-Los Verdes* de Juantxo Domínguez. La candidatura que presentaron en las elecciones municipales de 1999 se denominó *Coalición Hiritarron Elkartasuna (Berdeak-Los Verdes/Altzakoak)*. Justo Gárate Irure fue el cabeza de lista de la candidatura al ayuntamiento de Donostia y Arturo Justo Tovar a las Juntas Generales de Gipuzkoa.

En las votaciones al ayuntamiento de Donostia obtuvieron 401 votos (1,84%) en el distrito electoral 7, que corresponde con el antiguo término municipal de la Villa de Altza. A nivel de todo el municipio de Donostia los votos obtenidos fueron 677.

Esas elecciones fueron las únicas en las que se presentaron.

Duela 50 urte Josu Artetxe hil zen

Hace 50 años moría Josu Artetxe (📄)

2023/12/06

Jose Ramon Zapirain “Zapi”, Antxon Alfaro

Duela 50 urteko abenduan, diktadura frankistak bere zimenduak kolokan ikusi zituen ETAk Luis Carrero Blanco almirantearen aurka egindako atentatua-

rekin. 1973ko abenduaren 20an, osteguna, Carreroren ibilgailua Madrilgo Claudio Coello kaletik igarotzean, ETako Txikia komandoak lehergailu bat leherrarazi zuen. Hilabete batzuk lehenago, Francok Luis Carrero Blanco izendatu zuen Gobernuako presidente, eta diktadorearen oinordekotzat jotzen zen hil zenean.

“Ogro Operazioa” izenaz ezagutzen den Frankismoko elitearen aurkako atentatu honek adar ugari izan zituen. Horietako bat, bi aste lehenago gertatu zena, Altzaraino iristen zen. Izen bat du: Josu Artetxe Aiesta (Zeberio, 1952-Altza, 1973). 21 urteko gazte bat, bere bizia emateko gai izan zena, atentatu horren plana agerian gera ez zedin.

1973ko udazkenean, Josu, ETako militante liberatua, Gipuzkoako komando legalen arduraduna zen. Bikote batekin bizi zen Altzako 13. poligonoan, 14. blokean, 5. atarian, 7. D pisuan, gaur egun Larratxo auzoko Txirrita Bertsolaria kalea 9 bezala ezagutzen dena.

Josu irailan iritsi zen Altzara bere lagun Joxe Etxeberria Sagastume “Beltza”-ren bitartez, pisuaren jabearen anaia. Joxe Etxeberria Josu baino egun batzuk lehenago hil zen, azaroaren 28an, Jose Luis Pagazaurtundua Isusi ETako kidearekin batera manipulatzan ari zen lehergailuak eztanda egin ondoren.

Azaroan, hainbat atxilotetaren ondoren, Larratxoko etxebizitzari buruzko informazioa lortu zuen polizia. Abenduaren 6ko (osteguna) goizaldean, polizia handi batek Altzako 13. poligonorako sarbideak kontrolatu zituen. Goizaldeko hirurak aldera, Poliziaren Brigada Politiko-Sozialeko ikuskatzaileak, “secretas” bezala ezagunak, 14. blokeko 5. atarian sartu ziren. Bilatzen ari ziren etxebizitzaren kokapena zehazki ezagutzen ez zuten, etxebizitzaz etxebizitza joan ziren haietako bakoitzean bizi ziren pertsonen eta argazkia zeraman emakume batez galdezka.

Etxebizitza asko hutsik zeuden oraindik, blokea zuela gutxi eraiki baitzen. Zazpigarren solairura iristean, A, B, C eta D atean jo zuten, “Ireki, polizia!” oihukatuz. B atea bakarrik ireki zen, non Ana Yarza Martiarena eta Abdon Macias Macias “Txoko” bizi ziren. Senar-emazte horiek beren etxebizitza berrira lekualdatu berri ziren, oraindik eraikitzen ari zen Larratxo auzoan. Hurrengo urteetan, Ana eta Txoko oso ezagunak izango ziren auzo horretan, egin zuten lan politiko eta sozialagatik.

Azaroaren 24an atxilotu zuten Txoko, Herrerako Medasa fabrikako greban parte hartzeagatik. Martuteneko kartzelan sartu zuten hiru egunez. Horregatik, berriz ere atxilotzera zetozela pentsatu zuen, eta Anak gogoratzen duen bezala, atea irekitzean “berriro nire bila zatozte” esan zien poliziei. Ezagutzen zuen polizia batek erantzun zion: “Lasai, gaur ez zaizu zuri tokatzen”. Emakume baten argazkia erakutsi zioten eta ea ezagutzen zuen galdetu zioten, eta ezetz erantzun zioten. Gero galdetu zioten ea jende gehiago zegoen etxean eta esan zien bere emaztea zela. Irteteko esan zioten, eta argazkia ere erakutsi zioten, eta ez zuela ezagutzen erantzunez. Oso aste gutxi baitzeramatzatelako eraikinean bizitzen. Anak gogoratzen du beldur handia pasatu zutela. Atea itxi eta 6:30ak aldera etxetik irten ziren, Ana lanera bidean eta Txoko bere amaren etxe-

ra. Poliziak zeuden eskaileretan eta kalean. Asko Larratxo pasealekuan zeuden, aurreko etxeak oraindik eraiki gabe zeudelako.

A, C eta D etxebizitzetan inork ez zuen erantzun. A eta C etxebizitzak hutsik zeuden. Poliziak susmatu zuen D etxean egon zitekeela bilatzen zuten pertsona. Errefortzuen zain egotea erabaki zuten, 14. blokeko zazpi atariak hustu zituzten eta Larratxo pasealekuan posizioak hartu zituzten etxebizitzaren aurrean. Goizeko 8etan tiroketa bat hasi zen. Josuk bikoteari esan zion “ez naute bizirik harra-patuko”. Hartu zuen familiarekin egin zituen azken hitzak izan ziren. Senar-emazteak logelako ohe azpian babestu ziren, eta Josuk, bere gelatik, poliziari erantzun zion.

Goizeko 10ak aldera, poliziak bomba negar-eragileak jaurtitzen hasi ziren etxebizitzaren kontra. Denborak aurrera egin ahala, airea arnastetuka hasi zen, eta ordubete geroago, senar-emazteek gelatik irten eta amore ematea erabaki zuten. [1]

Tiroketa luze baten ondoren, garaiko prentsaren arabera, 200 bala-inpaktu baino gehiago zenbatu ziren etxebizitzan [2], arratsaldeko ordu biak aldera, poliziek ez zuten erantzunik jaso. Josu hila zen. Autopsiaren arabera, heriotza lokian egindako tiro bakar batek eragin zuen.

Hasiera-hasieratik, bere buruaz beste egin zuenaren hipotesia erabat baztertu zen, polizia frankistak hiltzera botatzeko erabili zituen metodoak ezagunak baitziren. Hala ere, geroago jasotako informazioen arabera, Josuk bere buruaz beste egitea erabaki zuen atxilotu aurretik. Bazekien atxilotzen bazuten modu basatian torturatuko zutela eta Madrilen prestatzen ari ziren ekintzari buruzko datuak emango zizkiola.

Iñaki Egañak “Ogro operazioa” [3] bere azken liburuan Josuk Madrilgo atentatuarekin zuen harremana erakusten duen datu bat jasotzen du. Jesus Zugarra-



murdi Huici “Kixkur”-ek, Josuren lagun mina eta Carrero Blanco hil zuen leherketaren egileak, kontaktzen du lehergailua aktibatzen unean bere lagun Josu Artetxe besterik ez zuela buruan.

Garai hartan eraikitzen ari ziren Larratxo auzoan bizi zen jende urriak gogoratzen du tentsio handiz bizi izan zituela poliziaren okupazioagatik, etxebizitza guztiak utzarazteagatik eta Josu zegoen etxebizitzaren aurkako tiroketa eta balaz jotzeagatik, gas negar-eragilez osatutako hodei baten barruan.

Josu hil eta bi urtera, 1975ean, Franco diktadorea hil zen eta “trantsizio demokratikoa” deiturikoa hasi zen. Garai hartan, 80ko hamarkadaren erdialdean, diktadura frankistaren aurkako borrokan

eroritako militanteak gogoratzeko dinamikaren barruan, Altzako ezker abertzaleak omenaldi bat antolatu zion Josu Artetxeri, eta oroitzapenezko plaka bat jarri zuen Larratxo auzoko plazan. Orduetik aurrera, plaza “Josu Artetxe plaza” izenez ezagutzen da, bai auzokideengatik, bai Donostiako Udalarekiko harremanengatik.

Hainbatetan, poliziek kendu dute plaka, eta beste horrenbeste jarri da berriro. Une honetan plazak inolako bereizgarririk ez duen arren, oraindik ere “Josu Artetxe” deitzen diote, frankismoak Carrero Blanco almirantearekin jarraipenik izan ez zezan bizitza eman zuen gaztearen omenez.

Erreferentziak:

- [1] La Voz de España, 1973-12-07: “Un activista de ETA muerto en tiroteo con la policía en Alza”.
- [2] La Vanguardia Española, 1973-12-07: “San Sebastián: Un activista de la E.T.A. muerto en tiroteo con la policía”.
- [3] EGAÑA SEVILLA, Iñaki (2023): Ogro operazioa. Ekintza eta mitoaren eraikuntza. Tafalla: Txalaparta.

IKERKETA / INVESTIGACIÓN

El abanico profesional de Altza en 1934

Altzako lanbide sorta 1934. urtean 

2023/02/03

Tras la aprobación de la Constitución de 1931 se promulgó una nueva ley electoral en 1933 que, entre otras novedades, rebajaba la edad para votar a 23

años, e introdujo, por primera vez en nuestra historia, el voto femenino. La lista actualizada del Censo Electoral fue publicada oficialmente en 1934, lista en la que se ofrecen los siguientes datos: número de orden en la sección, apellidos y nombre del elector o electora, sexo, edad, domicilio, profesión, y si sabe leer y escribir. En estas líneas nos vamos a asomar a la sociología electoral del periodo republicano [1] fijando nuestra atención en la dedicación profesional de la población altxatarra en esas fechas.

Dirección general del Instituto Geográfico, Catastral y de Estadística 24

Rectificación del Censo electoral correspondiente al año 1934, ordenada por Decreto de 6 de Noviembre de 1933
PROVINCIA DE GUIPÚZCOA

Término municipal de Alza

Distrito municipal núm. 1 Sección núm. 1

Lista de votantes a los electores de la expresada Sección, formada en virtud de lo dispuesto en el art. 5.º del expresado Decreto.

APPELLIDOS Y NOMBRE DEL ELECTOR	SEXO	EDAD	DOMICILIO	PROFESION	SI	NO
1. Abdo Ursúa José	V	23	Juana enea	Jornalero	SI	SI
2. Acebal Ribera Fidel	V	33	Casas Baratas 9	idem	SI	SI
3. Acha Apoitá Eulogio	V	33	Reformatorio de Uba	Religioso	SI	SI
4. Adúriz Arregui Engracia	V	31	Escuelas	Labores	SI	SI
5. Adúriz Loínaz Laureano	V	79	Idem	Labrador	SI	SI
6. Adúriz Arregui Engracia	H	50	Elenategui berri	Labores	SI	No
7. Aguado Martínez de Aguirre Miguel	V	34	Ainguelu goicoa	Empleado	SI	SI
8. Aguinagalde Arocena Tomás	V	43	Arteaga	Linternero	SI	SI
9. Aguinagalde Beloqui Estefanía	H	28	Catalincho enea	Labores	SI	SI
10. Aguinagalde Beloqui Rosario	H	25	Idem	Idem	SI	SI
11. Aguinagalde Otegui José	V	59	Idem	Labrador	SI	No
12. Aizpurúa Casares J. Leandro	V	66	Plaza de la Villa	Médico	SI	SI
13. Aizpurúa Elizalde Miguel	V	25	Idem	Empleado	SI	SI
14. Aizpurúa Elorza Petra	H	34	Ainguelu	Labores	SI	SI
15. Albizu Maiza María Manuela	H	83	Aizpurucho	Idem	SI	No
16. Albizu Letamendia Alberto	V	41	Ainguelu	Jornalero	SI	SI
17. Alcaín Cortadi Lorenza	H	40	Anis enea	Labores	SI	No
18. Alcaín Cortadi Trinidad	H	39	Ayenasa	Idem	SI	No
19. Alcaín Cortadi Micaela	H	42	Ainguelu	Idem	SI	No
20. Aldasoro Arandia José	V	59	Garrategui	Jornalero	SI	No
21. Aldasoro Elcegui María	H	23	Idem	Labores	SI	SI
22. Almandoz María Evarista	H	38	Echarri berri enea	Idem	SI	SI
23. Almandoz María Faustina	H	48	Idem	Idem	SI	SI
24. Almandoz María Gregoria	H	33	Idem	Idem	SI	SI
25. Almandoz María Melitona	H	37	Sarrueta	Idem	SI	SI
26. Almandoz Ayerregaray Ramona	H	55	Zapirain	Idem	SI	SI
27. Alquiza Larrea Concepción	H	33	Mercaeder 8	Idem	SI	SI
28. Alquiza Larrea Simona	H	36	Idem 8	Idem	SI	SI
29. Alquiza Altuna María	V	24	Larramendi	Idem	SI	SI
30. Alquiza Tejería Ramón	V	56	Idem	Labrador	SI	SI
31. Alquiza Usobiaga Francisco	V	23	Ibarburu	Idem	SI	SI
32. Alquiza Usobiaga Margarita	H	25	Idem	Labores	SI	SI
33. Altuna Maiz José	V	26	Antondegui	Labrador	SI	SI
34. Amiano Garicano Félix	V	37	Casa Cural	Párroco	SI	SI
35. Amilibia Aguirre Ramiro	V	62	Toki alay	Jubilado	SI	SI
36. Amundarain Arrieta María Juana	H	25	Martitegui	Labores	SI	SI
37. Amundarain Zuriarrán Isabel	H	63	Isabeleche	Idem	SI	No
38. Anabitarte Añorga Gregorio	V	36	Lardiandi	Labrador	SI	SI
39. Anabitarte Añorga J. Lorenzo	V	42	Idem	Jornalero	SI	No
40. Anabitarte Añorga J. Manuel	V	36	Idem	Idem	SI	SI
41. Anabitarte Añorga Manuela	H	47	Idem	Labores	SI	SI
42. Anabitarte Añorga María	H	32	Idem	Idem	SI	SI
43. Anabitarte Arrieta Ignacio	V	37	Lazueña	Labrador	SI	SI
44. Anabitarte Arrieta Joaquina	H	77	Idem	Labores	SI	No
45. Anabitarte Arrieta José	V	33	Idem	Labrador	SI	SI
46. Anabitarte Iradi Bernardo	V	64	Lasquiñaenea	Idem	SI	SI
47. Anabitarte Zapirain Antonio	V	25	Idem	Idem	SI	SI
48. Anabitarte Zapirain José	V	27	Idem	Idem	SI	SI
49. Anabitarte Zapirain Leonardo	V	72	Lardiandi	Idem	SI	SI
50. Anda Anda Pascuala	H	32	Iparraguirre 23	Labores	SI	No
51. Ansa Irizar Eugenio	V	60	Ancieta berri	Labrador	SI	No
52. Ansolá Unzueta Gumersindo	V	42	Ayuntamiento	Ordenanza	SI	No
53. Añorga Aguirre Josefa Ignacia	H	72	Lardiandi	Labores	SI	No
54. Apalategui Albizu José María	H	52	Aizpurucho	Jornalero	SI	No
55. Apalategui Dorronsoro Lorenzo	V	27	Idem	Guardia municipal	SI	SI
56. Apalategui Dorronsoro Manuela	H	27	Idem	Labores	SI	SI
57. Aramburu Aldaya Ignacio	V	29	Ainguelu	Labrador	SI	SI
58. Aramburu Aldaya María	H	27	Idem	Labores	SI	SI
59. Aramburu Anabitarte Ignacia	H	49	Arrieta	Idem	SI	SI
60. Aramburu Artola Manuela	H	60	Trasuro enea	Idem	SI	SI
61. Aramburu Eciolaga Margarita	H	48	Estibaús	Idem	SI	No
62. Aramburu Lavaca Concepción	H	51	Andergui	Idem	SI	SI

El abanico de profesiones registradas es muy amplio, reflejo de una sociedad urbana con una economía basada en los servicios, el comercio y la industria. Algunas denominaciones son genéricas, mientras que otras son muy precisas, dificultando la clasificación. Así que nos hemos inclinado por agrupar las profesiones por afinidad, ordenándolas por la cantidad de registros, y resaltando las profesiones declaradas por las mujeres. En total son las profesiones de 2.934 electores y electoras, un 53,03% de ellos varones. [2]

- No remuneradas y/o no productivas: **Labores**, 1.264; *Estudiante*, 6; *Cesante*, 4; *Jubilado*, 4; *Retirado*, 3; *Ciego*, 1; *Imútil*, 1; *M.R.* [¿militar retirado?], 1.
- Asalariados sin cualificar: *Jornalero*, 767, y *Jornalera*, 4; *Empleado*, 68, y *Empleada*, 4.
- Construcción: *Obrero*, 25, y *Obrera*, 3; *Albañil*, 24; *Peón*, 18; *Cantero*, 10; *Capataz*, 1; *Listero*, 1; *Bracero*, 1.
- Industria: *Mecánico*, 26; *Tonelero*, 9; *Metalúrgico*, 6; *Ajustador*, 6; *Calderero*, 4; *Moldeador*, 4; *Pulidor*, 4; *Carrocero*, 3; *Impresor*, 2; *Cigarrera*, 2; *Niquelador*, 1; *Forjador*, 1; *Fotografador*, 1; *Sobrestante*, 1. En oficina y otros: *Escribiente*, 4; *Delineante*, 1; *Ordenanza*, 1; *Con-*

table, 2; *Vigilante*, 1.

- Transporte: *Chófer*, 12; *Tranviario*, 11; *Ferrovionario*, 8; *Maquinista*, 3; *Motorista*, 2; *Jefe estación*, 1; *Maniobra*, 1.
- Gremios: *Carpintero*, 38; *Linternero*, 4; *Ebanista*, 4; *Electricista*, 7; *Pintor*, 4; *Carnicero*, 4; *Cortador*, 1; *Charcutero*, 1; *Barbero*, 3; *Tabernero*, 3; *Zapatero*, 2; *Peluquero*, 2; *Barquillero*, 1; *Carbonero*, 1; *Carretero*, 1; *Cestero*, 1; *Panadero*, 1; *Farmacéutico*, 1; *Sidrera*, 1. *Costurera*, 3; *Modista*, 3; *Sastra*, 2, y *Sastre*, 1;
- Mar y puerto: *Marinero*, 20; *Marino*, 7; *Fogonero*, 5; *Mozo arrumbador*, 2; *Pescador*, 2, y *Pescadora*, 1; *Corredor marítimo*, 2; *Capitán de Corbeta*, 1; *Capitán de Fragata*, 1; *Cargador*, 1; *Consignatario*, 1; *Mozo de aduana*, 1; *Práctico del Puerto*, 1; *Práctico mayor*, 1; *Redero*, 1.
- Propietarios y altos cargos: *Industrial*, 6; *Contratista*, 5; *Propietario*, 3, y *Propietaria*, 1; *Abogado*, 3; *Ingeniero*, 2; *Director S.F.*, 1; *Rentista*, 1.
- Empleo público: *Maestra*, 10, y *Maestro*, 8; *Caminero*, 5; *Médico*, 4; *Guardia municipal*, 4; *Cartero*, 3; *Secretario Ayto*, 1; *Secretario Judicial*, 1; *Sereno*, 1; *Escribano*, 3; *Contador*, 1.
- Servicio: *Sirvienta*, 43, y *Sirviente*, 12; *Jardinero*, 3; *Cocinera*, 2, y *Cocinero*, 1; *Portero*, 2, y *Portera*, 1; *Conserje*, 1; *Criado*, 1.
- Religión: *Religiosa*, 22, y *Religioso*, 2; *Sacerdote*, 7; *Párroco*, 2.
- Comercio: *Comercio*, 20; *Viajante*, 4; *Comerciante*, 2; *Agente Comercial*, 1; *Agente de vigilancia*, 1; *Agente Tabaco*, 1; *Comisionista*, 1; *Compra y venta*, 1; *Dependiente*, 3, y *Dependiente*, 1; *Representante*, 1; *Publicista*, 1; *Vendedora*, 1.
- Agricultura: *Labrador*, 244, y *Labradora*, 1; *Hortelano*, 1.
- Otros: *Pelotari*, 1; no declaran profesión, 4.

Referencias:

- [1] Un estudio sobre la población, la actividad económica y un mapa sociológico de los años treinta, en RODRÍGUEZ RANZ, José Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en la elecciones de la II República*, pp. 11-51. En este estudio, Altza forma parte de la Gipuzkoa urbana, ocupando el puesto 13º por población de hecho (5.425 habitantes), el 5º en la tasa de crecimiento demográfico intercensal, el 8º en tasa migratoria, y el 23º en tasa de industrialización. Para conocer la estructura socioeconómica de Guipúzcoa en la II República, BARRUSO, Pedro: *El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República*, pp. 27-103.
- [2] El censo electoral de Altza está organizado en dos distritos. El primero dividido, a su vez, en dos secciones. La primera contiene las personas con domicilio en las zonas de Altzagaina, San Marcos y Sarrueta (574 electores), y la segunda domiciliados en la zona de Miracruz e Intxaurreondo (596 electores). En el segundo distrito tenemos cuatro secciones, una para la zona de Bidebieta y Buenavista (474 electores), dos para Herrera (334 y 402 electores), y otra para la zona entre Buenavista y Molinao (554 electores). Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa, AHPG-GPAH INE 180/1 7.

Ihitokitik marea-errotara: Maubernet (XVI. mendea)

De juncal a molino de marea: Maubernet
(s. XVI) (📄)

2023/07/12

Iñigo Landa, Juan Carlos Echeveste

Errenteriako kontzejuko akten artean, 1529ko irailaren 7an egindako erregimentu arrunteko akta bat dago, Juan Perez de Arriaga altzatarrak, Arriaga etxearen jabeak, aurkeztutako idazki bat jasotzen duena. Molinao aldean errota bat eraiki nahi zuen bere lurretan. Hitzez hitz honela dio: *“queria hedificar e faser vn molino en sus tierras que tenia junto al brazo de mar que ba del Pasaje a Molinao e avia de tomar el agoa del dicho brazo de mar e pasar la presa en la base del brazo de mar...”*. [1]

Dokumentu horrek Altzak historian zehar izan dituen sei errotetatik marea-errota izan den bakarra aipatzen du, Maubernet, Malbernet, Albernat, Abernat, Iparragirrerren errota, eta, oraintsuago, Aberneta, egungo Eskalantegi kaleko altzatarren aldean zegoena. [2]

Artikulu honetan, Arriagak eraiki nahi zuen errota berriaren inguruan izan ziren gertakariak eta ingurua barrak dokumentu bidez ezagutzea proposatu dugu, bai eta Molinaoko paduran, Donostiako eta Errenteriako hiribilduen jurisdikzio-muga gatazkatsuan, jatorriz kontzejua eta erabilera publikokoa zen jabetza baten gainean eraikitzeak sortutako ezinegona ere.

Aberneta etxea, jada desagertua eta lerro hauekin batera doan argazkian ikus dezakeguna [2. irudia], egungo Darieta bidearen aldaparen hasieran zegoen, eta errota-errotaren etxearen jatorrizko orubea hartzen zuen. Eskalantegi kaleko egungo espaloitik igaroko litzateke presa, Miranda etxearen ondoan dagoen Arriberrira igotzen den bidea hasten den lekuraino; eta marea igotzen zenean urez betetzen zen *antapara*, errota-errotaren karga-biltegia. Antapararen lekuan, urteak igaro ondoren, Usoz txapel-fabrika ezarri zen lautada horretan eta haren tximinoa da geratzen den aztarna bakarra, ikastolaren atzean zokoratuta. Antaparak, itsasgoratik datorren uraz gain, Tomasenetik, Larres ibarretik jaisten den errekastokoa ere jasoko luke.

Mauberneteko errota-errotaren lehen aipamena Serapio Mugica artxibozain eta historialariak eskaintzen du.



Aberneta, XX. mendeko lehen erdialdean. (Iturria: Antxotarrok Historia Mintegia); egungo ikuspegia: Google Maps.

Gaskoiek Gipuzkoan izan zuten presentziari buruz ari zela, honela zioen:

“El Ayuntamiento de San Sebastián, al cual pertenecía Alza en aquel tiempo, reunido el 10 de Junio de 1528, teniendo presente la necesidad que se sentía en la entonces villa de hacer molinos para moler las ceberas, y en la imposibilidad de levantarlos por su cuenta por carecer de recursos, acordó sacar en almoneda los lugares en donde podían levantarse, y uno de ellos era “cabe Molinao”, que es un lugar llamado Maubernet, que Lizaso escribe Malbernet.” [3]

Mugicak ez du esaten non kontsultatu zuen aipatzen duen udal-akta hori, -1813an Donostiako hiriaren eta artxiboaren sutean desagertu zen dokumentazio bat-, agian bere artikulua orrialde horietan Gipuzkoan dagoen toponimia gaskoia aztertzen ari delako, eta horregatik, hain zuzen, **Domingo de Lizaso** genealogistak erabilitako **Malbernet** aldaera aipatzen du. Aipamen hori interesgarria da guretzeko, izan ere Lizasok, bere liburuan, Malbernet Santiagoko Etxearen jabetza dela dio, *“sus molinos de moler cevera nombrados Malbernet”*-, eta gehitzen du: *“cuyos poseedores fueron Martin Sanchez de Villaviciosa y Maria Miguel de Santiago”*, Villaviciosa-Santiago senar-emazteak jabeak izan zirela, alegia. [4]

Dokumentazioa aztertuta, ezin da egiaztatu Lizasok Malbernet/Maubernet errota-errotaren eta Santiago familiaren artean ezartzen duen harremana, baina erreferentzia horrek balio handia izango du guretzeko. Izan ere, kontsultatutako Santiago leinuaren dokumentazioaren artean **1528ko abenduaren 21eko data duen espediente baten** kopia aurkitu dugu, eta espediente horrek lotura estua izango du, ikusiko dugunez, Serapio Mugica Mauberneti buruz emandako informazioarekin. [5]

Hau da espedientearen izenburua: *«Venta de unos sitios de molinos nombrados “de la Aguada”, cerca de Mundaiz, en los juncales; por la ciudad de San Sebastian a Esteban de Santiago, en 266 ducados; ante el Escribano Domingo de Alzega, en San Sebastian a 21 de Diciembre de 1528»*. [6] Hau da, Donostiako hiriak Esteban de Santiagori errotak eraikitzeke leku bat saltzen dio 266 dukatetan, La Aguada izeneko lekua, Mundaiztik gertu, ihitokietan. La Aguadako leku hori **Santiago-Errotak** gaur egungo Katalina de Erauso kalean (Amara) zuena da.

Salerosketa-eskriturarekin batera, Donostiako Hiribilduko erregimentuaren aktaren kopia bat dago, 1528ko ekainaren 10ean egina. Bertan, salmenta justifikatzen duten arrazoiak azaltzen dira lehenik eta behin: errota-errotaren eskasia aleak ehotzeko, hiriko zorrak eta gastuak, eta derrama saihesteko. Honela dio dokumentuak:

“en esta dicha Villa havia mucha necesidad de moliendas de seuera por falta de las quales el pueblo e republica de la dicha Villa rezeuia mucho daño, e fatiga no pudiendo en tiempo de verano moler sus severas que lleuavan fuera de sus casas, y moliendas, y avn de su jurisdiccion, y por que la dicha Villa

*tenia lugares convenientes para en que se ysieren mas molinos assi en sus aguas dulzes como en las saladas en sus publicos conseqiles [...] todos de conformidad dixeron que por socorrer a la dicha Villa de la dicha necesidad, e porque la dicha Villa por si no vastaua ni podia ni le conuenia hazer molinos y, esta muy **necesitada y endeudada**, assi por las obras que por mandado de su Magestad se hazen como por otras necesidades e pleitos, e por evitar derrama [...]*”.

Ondoren, honako errota eraikitze guneak eta lekuak almonedan saltzeko agintzen da:

“vno de ellos entre los molinos de Lorenzo de Montaot e los de Domingo Lopez de Ernialde e otro sitio, e lugar de molino entre los molinos que fueron de Martin Perez de Bildain, e del dicho Domingo Lopez, e otro sitio e lugar de molino caue Molinao en Alza que es lugar llamado Maubernet”.

Lau egun geroago, ekainaren 14an, lehenengo errota-lekua enkantean jarri zen, La Aguadako ihitokiari dagokiona, Lorenzo de Montaot-en eta Domingo Lopez de Ernialde-ren erroten artean, Santiago-Errota izango zena. Horrela, hasiera batean, operazioak ez zuen erakargarria izan behar, eskaintzaileek beherantz jo baitzuten eta enkantea hutsik geratu baitzen. Almoneda ekainaren 21ean, ekainaren 28an, uztailearen 19an, abuztuaren 2an eta abuztuaren 9an errepikatuko da, eta guztietan **enkanteak hutsik geratu ziren**.

Dena aldatuko da zazpigarren almonedan, abenduaren 13an, salmenta operazioak benetako babes lortzen duenean. Ekitaldiaren hasieran, **Karlos enperadoreak eta haren amak, Juana erreginak**, bidalitako gutun bat irakurri zen. Gutun horretan, Donostiako Hiribilduko kontzejuaren eskaerari kasu egin ziotela diote, eta, korrejidoreari eta Kontseiluari informazioa eskatu ondoren, azaldu zizkieten arrazoiak aintzat hartu eta **bi errota-gune saltzeko baimena eta ahalmena** emateko agindu zuten. Gutunak zehazki aipatzen ez baditu ere, bi errota-gune horiek La Aguada eta Maubernet dira. Errege agindu horrek babes osoa ematen dio Donostiako kontzejuari kontzeju-jabetzak saltzeko eta, horren ondorioz, enkanteko balioa handitzea ekarriko du, hasierako 200 dukateetatik 266 dukateetara igaroz.

Gorago esan dugun bezala, ez dugu aurkitu Maubernet/Malbernet Santiagoren etxearekin zuzenean lotzen duen ezer, eta horrek zalantzan jartzen du Lizasok esandakoa, errota Martin Sanchez de Villaviciosaren eta Maria Miguel de Santiagoren jabetzakoa izan zela dioenean. Gainera, zalantza areagotu egiten da ikusten dugunean Maria Miguel de Santiagoren testamentuan, xehetasunetan ugaria baita, ez dagoela errota horri buruzko aipamenik [7], eta ez dugula inolako erreferentziarik aurkitzen Jago Irixoa historialariak Martin Sanchez de Villaviciosari eta haren jabetzei eskaini zien atalean, *Pasaia: hastapenak (XIV-XVI)* liburuan. [8]

Mauberneten enkante- eta salmenta-prozesua La Aguadakoaren ondoren gertatu behar izan zen; izan ere, bederatzi hilabete baino ez ziren igaro 1528ko abendua-

ren 21ean Esteban de Santiagori saltzeko eskritura egin eta 1529ko irailaren 7an Arriagak Errenteriako kontzejuari idazkia aurkeztu zionetik. Idazki horrek agerian uzten du ordurako Arriaga Mauberneteko errota eraikiko diren lekuaren jabea zela. [9]

Erroten salmentak, ordea, **bizilagunen aurkakotasuna** aurkitu zuten bidean. Horren erakusgarri daukagu Errege Kontseiluak 1529ko maiatzaren 15ean emandako ebazpen bat, Donostiako zenbait herritarrek aurkeztutako salaketari erantzunez. Hauxe da auzokideen salaketa:

*“los Alcaldes é Regidores de la dicha villa, fingiendo ocasiones de necesidad, diz que vendieron el año pasado de mil é quinientos é veinte é ocho, ciertas tierras é sitios de molinos de que **los vecinos** de la dicha villa se aprovechaban de juncos é feno é pastos de ganados para sus necesidades, lo cual diz que habian fecho por aprovechar á algunas personas sus amigos que compraban los dichos heredamientos, é por se aprovechar dellos, é á otras personas con los depósitos del precio de las dichas ventas ...”.* [10]

Kontzejua **gezurretan** aritzea salatzen dute, –kontzejuak ez zituen aurkeztu kontzeju-jabetzak saltzeko beharra justifikatzen zuten diru-sarreraren eta gastuen kontuak–, bai eta beraien **lagunen alde** egiteaz ere, eta, horren guztiaren ondorioz, zuzenean kaltetuak gertatzen dira udal ondasunen gainean erabilera kolektiboko eskubidea duten bizilagunak, hala nola ihiak atera eta erabiltzeko eta mota guztietako abereak larratzeko eskubidea.

Kontseiluak azken sei urteetako Donostiako kontuak ikuskatzeko aginduko du eta pentsa daiteke ikuskatze horren emaitza Donostiako kontzejuaren aldekoa izan zela, La Aguada eta Mauberneten jabe berriek, Esteban Santiagok eta Juan Perez de Arriagak, eskuratutako eskubideak ez baitziren aldatu eta jabe osoak izan ziren.

Errege-abalak eta Kontseiluarenak bidea libre ematen zioten Arriagari errota Mauberneten eraikitze, baina dena ez da hain erraza izango. Errenteriako kontzejuaren aurrean jabetza eskuratu bezain laster aurkeztu duen idazkiak oso ondo islatzen du hori. Arriagak ziurtatu nahi du Errenteriak ez duela inolako eragozpenik jarriko, bere notarioari zera entzuna baitzion: *“el dicho brazo de mar era comun de los conçeijos de la dicha villa de San Sabastian e desta dicha villa de Oyarçun (sic) le querria proybir e vedar porque ende que suplicaba a sus merçedes tubiesen por bien de [marratuta: darle liçençia] para faser e pasar la dicha presa por la dicha basa e canal e non le quisiesen poner en ello ynpedimiento alguno en ello”.* Molinaoko paduraren jurisdikzioa Donostiarena eta Errenteriarena zela, alegia. Erregidoreak lekua bisitatzerako joatekotan geratu ziren. Aktaren bazterreko ohar batek hau dio: *“non quiso liçençia ni se le dio çugar?”.*

Idazkia aurkeztu eta bi hilabetera gertatutakoek Arriagak errota altxatzen hasi aurretik erakutsitako zuhurtasuna arrazoizkoa zela erakusten dute: 1529ko azaroaren 25ean, **borroka armatu odoltsu bat** gertatu zen San Martzial elizaren inguruan eta Port de Plat

(Guardaplata) baserrian, badiaren jurisdikzioak Donostia eta Errenterian artean sortutako gatazkaren eta portuaren Donostiako administrazioak Errenteriako merkataritza-jardueran eragiten zituen kalteen ondorioz. [11]

Portuari buruzko gatazka jurisdikzionalaz gain [12], Arriagaren ekimenak Errenterian ere bizilagunen kekekin topo egingo du, Mauberneteko senadia txikian errota berria eraikitzen ari zelako. Esteban de Yriçarrek 1530eko abenduaren 30ean Errenteriako erregimentuan aurkeztutako salaketak Arriaga Errenteriako kontzejuaren oniritziarekin egiten ari zen errotaz bizilagunek daukaten kexa adierazten du: *“como los de Oyarçun se quexaban de tres cosas la vucal [=presa] e molino nuevo que los de Harriaga fazian en el braço de mar del Pasaje e con consentimiento desta dicha villa...”*. [13] Ez ditu kekak zehazten, baina Donostiako bizilagunek azaldutakoan ildotik joango ziren.

Ez salaketa horrek, ez Donostiako bizilagunek lehenago egindakoak, ez zuten eragotzi Mauberneteko errota eraikitzea. Denborak aurrera egin ahala, Iparragirrerren errota izatera pasako da XVIII. mendean, Molinaoko Iparragirre baserriko jabetza izatera pasa zenean. Bere errota bizitza, azkenik, 1844 inguruan amaituko da, errepede nagusiaren eraikuntzarekin eta ondorioz paduraren lehortearekin. Aberneta etxea, XX. mendearen erdialdean desagertua, eta Usozoko kirol-pistak, ikastolak eta anbulatorioak okupatutako zabalgunea dira Arriaga etxeko seme batek XVI. mendearen lehen herenean Mauberneten eraiki zuen marea-errotaren azken aztarnak.

Erreferentziak:

- [1] Errenteriako Udal Artxibo Historikoa, EUAH-AMHE, A-1-2, 4. zatia, 45r-v orr. [122-123].
- [2] AGUIRRE SORONDO, Antxon: *“Nuestros molinos”*. In: Altza, hautsa kenduz - X (2003), 166. orr..
- [3] MÚGICA, Serapio: *“Los gascones en Guipúzcoa”*. In: Estudios sobre San Sebastián, Grupo Doctor Camino de Historia Donostiarra 13 (1980), 96. orr.: *“Mal-vernet [...] Vern, significa ‘abedul o aliso’ –altza en vascuence–, y según esto, el todo Mal-vernet será ‘Alisal en lugar predominante’.*” Gai honi buruz, ikus MÚGICA, José: *“Los gascones en Guipúzcoa”*. In: Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País. Donostia: 1967, 5, 8 orr..
- [4] *“Esta Casa solar de Santiago tenía sus dos bodegas y muelles y porción de montes jarales en el camino por donde se va al lugar de Lezo, y sus molinos de moler cevera nombrados Malbernet, en jurisdicción de la ciudad de San Sebastián en la ribera del brazo de mar que va hacia los molinos de Molinao con sus tierras de sembrar manzanales, huerta y demás pertenecidos, cuyos poseedores fueron Martin Sanchez de Villaviciosa y Maria Miguel de Santiago, su mujer, vecinos del mismo lugar del Pasaje [...]”*. LIZASO, Domingo de: *Nobiliario de los Palacios, Casas solares y Linajes nobles de la M.N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*. San Sebastián: Imprenta de la Diputación, 1901, II liburukia, 72. orr..
- [5] Serapio Mugicak Olazabalgo Etxeko artxiboaren inbentarioa egin zuen. Artxibo horrek Santiagotarren leinuko dokumentazioa gordetzen du, eta espedientea bertan dago. Horri esker, Mugicak Mauberneti buruz erabili zuen informazio-iturria espediente hori izan zitekeela susmatzen dugu.
- [6] Euskadiko Artxibo Historikoa, Olazabal Etxearen Artxibo, signatura 000886. Espedientearen transkripzioa hemen. Espedientearen beste kopia bat Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan dago: 1848-05-09, “Donostiako Udalak Santiago errotaren (Donostia) salmenta-eskitura protokolizatzea (1528-12-21), Esteban de Santiago bertako bizilagunaren alde. Frantzian bizi den Francisco Larralde Diusteguik eskatuta.” AHPG-GPAH 3-3329 A72r-100r.
- [7] IRIXOA, Iago: *“Martin Santxex Villaviciosa: Un ejemplo de expansión en la bahía”*, in Pasaia: orígenes (Siglos XIV-XVI). Sorginarri bilduma, 5. Pasaia: 2009, 26, 27 orr..
- [8] 1541-09-12 Maria Miguel de Santiago-ren testamentua. Arg.: ÁLVAREZ PÉREZ-SOSTOA, Denis; GARRIDO YEROBI, Iñaki: In Dei Nomine. La Hondarribia del siglo XVI a través de sus testamentos. XVI. mendeko Hondarribia bertako testamentuen bidez. Hondarribiko Udala, 2014, dok. 153.
- [9] Honi buruz, ikus IRIJOA CORTÉS, Iago; MARTÍN SÁNCHEZ, David: *Errenteria a inicios de la Edad Moderna (1495-1544)*, edizio digitala, 319. orr. Inprimatutako edizioan, *Errenteria a inicios del siglo XVI: comercio y sociedad*. Bilduma, 24 zbkia. (2012), 51. orr..
- [10] Toledo, 1529-05-15: Errege Kontseiluaren ebazpena, sei urte lehenagoko Donostiako hiribilduaren beraren, errenten eta banaketan kontuak hartzeko aginduz. Arg.: *“Colección de cédulas, cartas-patentes y otros documentos concernientes á las Provincias Vascongadas”*. III. liburukia. Madril, 1829, 241-243 orr..
- [11] *“Estas poderosas consideraciones y la de la precisión en que mediante la sentencia de Lasarte y Urdayaga y privilegio de don Enrique se les iba a poner a la villa de Oyarzun y su tierra, de desistir del floreciente comercio que habían hecho y hacían en el puerto como luego se dirá, fueron causas de irritar sus ánimos y renovar los alborotos contra San Sebastián hasta que haciendo unos y otros gente asalariada, continuaron las hostilidades y se dieron una sangrienta batalla en las cercanías de la iglesia de San Marcial del partido de Alza, causando de una y otra parte mucha mortandad y saliendo vencedores aquellos como que obligaron a los de San Sebastián a encerrarse en la casería de Port de Plat, sita más arriba de la Herrera, a la que incendiaron. Consta este Pasaje de información auténtica recibida en virtud de despacho del Corregidor de esta Provincia, licenciado Diego Ruíz de Lugo, su fecha 25 de Noviembre de 1529...”*. GAMÓN, Juan Ignacio: *Noticias históricas de Rentería*. Nueva Editorial. Donostia: 1930, 261. orr..
- [12] Badiako uren gaineko jurisdikzioaren gaiak sortaraziko eztabaidek ondorengo mendeetan jarraituko dute. Adibidez, Errenteriako kontzejuak 1691ko apirilaren 16an egindako mugarriztatzearen akta honetan ikus dezakegu, non mugariak itsasgora heltzen den leketan kokatzen dituen, *“En todo aquello que inundan las mareas en su maior creciente, y en el Puerto y canal de los Pasajes”*, eta horien artean Abernat errota seinatzen du: *“... y desde allí a un molino de la misma villa [Donostia] llamado de Abernat; y desde allí por la costa asta la puente de Molinao ...”*. EUAH-AMHE C/5/I 5. liburukia, 3. espedientea. Horri dagokionez, aipatzekoa da 1890eko

epaia, Pasaiaiko udalerrinari Antxoko barrutiaren gaineko jurisdikzioa eman ziona itsasgorak jotzen zuen lekuraino, Maubernet errotaren karga-depositu zaharra hartzen zuen zabalgunea Altzako jurisdikzioaren pean geratu zela, eta, horregatik, gaur egun Donostiako terminoaren zati dela.

[13] Fermin Lasalak 1844an eskuratu zuen obraren emakida. Ikus ROQUERO, M^a Rosario: La vida de Altza a través de sus actas municipales (1843-1900). AHM, 58. or..

Centaurotik Gazte-Lekura (1): Santa Barbara eta Erroteta

Del Centauro a Gazte-Leku (1): Santa Bárbara y Roteta (📷)

2023/02/13
Antxon Alfaro



Santa Bárbara y Roteta (F. Iranzo)

Centauro eta Gazte-Leku gazte elkarten historia txikiak Santa Barbara eta Erroteta auzune alztarren garapenari estuki lotuta daude, baita Jesusen Lagundiko ordena erlijioso katolikoari, jesuitak bezala ezagutzen direnei ere.

1951. urtean, Santa Barbara auzunea eraikitzeke proiektuarekin, Altzako eremu horren hirigintza-garapenari ekin zitzaion. [1] Sustatzailea José Gurruchaga izan zen eta proiektuaren diseinua Pablo Zabalo arki-

tektoari enkargatu zion. Eraiki zen lehena A blokea izan zen. U forma zuen, eta XIX. mendean jada existitzen zen eraikuntza-eredu bat errepikatzen zuen, *corrala* etxeak, langileei zuzendutakoak. [2] Lehen familiak, horietako asko Extremadurako edo Gaztelako migratzaileak, 50eko hamarkadaren erdialdean hasi ziren etxebizitza berrietan bizitzen.

Urte batzuk geroago, 1958an, Casares y Cía sustatzaileen ekimenez, Erroteta auzunea garatzeko proiektua aurkeztu zen, Isidro Setien Alberro arkitektoak egina. [2]

Hirietako periferietan eraikitako langile-azune horiek honako premisa hau jarraitzen zuten: “lehenik, etxebizitza, eta, ondoren, hirigintza”, Jose Luis de Arrese Magra arkitekto falangista eta frankismoko Etxebizitza lehen ministroak defendatzen zuena. [3]

Aurrekoa berretsiz, Antonio Davilak gogorazten du 1957an Santa Barbarako C blokera bizitzera etorri zenean etxebizitza bizigarritasun-baldintzek oso kaskarrak ziren. Ia urtebete bizi izan ziren etxebizitzan argindarrik izan gabe. Kaleek ez zuten batere urbanizazioziorik, eta euria egiten zuenean lokatza bihurtzen ziren. 20 urte igaro behar izan ziren Santa Barbarako kaleek asfaltoa zer zen ezagutzeko.

Bestalde, etxebizitzetan pilaketa-maila handia zegoen. Gehienetan bi edo hiru familia bizi ziren, eta batzuetan apopiloekin. Egun haietan, familia asko sukalde eskubidedun gela bakar batean bizi ziren, gelak berralkatu egiten ziren...

Gizarte-ekipamenduak ere oso oinarritzkoak ziren: espezializatorik gabeko saltokiak, merkataritza-etxabeetako ikastetxeak edo etxebizitza bihurtutako etxabeak, eta inolako ekipamendurik gabeko espazio publikoak.

60ko hamarkadaren hasieran, bi auzuneetako etxebizitza-blokeen eraikuntza ia amaituta zegoen. Seme-ala-ba ugari zituzten familia gazte askok okupatzen zituzten.

Bazterreko izaera nabarmena zuen inguru horretara hurbiltzen hasi zen Ignacio Larrañaga jesuita. Bere helburua Altzako inguru honetan finkatu berri ziren familien artean “giza eta espiritu-lana” egitea zen [4]. Bere lanak jarraipena izango zuen gero, kontatuko dugun historian paper garrantzitsua izan zuen jesuiten komunitatea ezarritz. Baina horretaz hitz egingo dugu hurrengo artikuluan.

Erreferentziak:

- [1] CAÑAMERO REDONDO, Antonio: “Santa Bárbara, Roteta, Arrizar, Arriberri, Los Boscos: un estudio urbano y demográfico”. In: Altza Hautsa Kenduz II. Altza: Altzako Historia Mintegia (1994), orr. 49-67.
- [2] HERRERAS MORATINOS, Beatriz (2001). Altza Historia y Patrimonio. Altza: Altzako Historia Mintegia, Artiga Bilduma 4.
- [3] DIONI LÓPEZ, Jorge (2021). La España de las piscinas: cómo el urbanismo neoliberal ha conquistado España y transformado su mapa político. Barcelona: Arpa.
- [4] OLEAGA, Javier: “Diario de la parroquia de San Pablo”. In: Altza Hautsa Kenduz IX. Altza: Altzako Historia Mintegia (2007), orr. 185-201.

Del Centauro a Gazte-Leku: los jesuitas (2)

Centaurotik Gazte-Lekura: jesuitak (2) 

2023/04/03
Antxon Alfaro

Al comienzo de los años 60, el padre Ignacio Larrañaga que vivía en la residencia de los jesuitas en la calle Garibay de San Sebastián, comienza una labor “humano-espiritual” [1] con las familias de las nuevas barriadas de Santa Barbara y Roteta. Con él colaboraba un grupo de jóvenes donostiarras de las Congregaciones Marianas, entre las que se encontraban Lola Valverde, Matxun Lilly, María Unceta o Juan José Lizuain “Juantxi”.

Mientras el padre Larrañaga se encargaba de los aspectos más espirituales con las familias, ese grupo de jóvenes realizaban actividades de ocio dirigidas a los y las chavalas del barrio. Los jueves por la tarde, que no había escuela, los llevaban a la Tenencia de Alcaldía de Altza donde solían pintar, hacer dibujos, jugar, manualidades... También hacían excursiones por los alrededores.

Para aquellas jóvenes donostiarras que vivían en el centro de la ciudad acercarse a aquella realidad de marginalidad con falta de equipamientos básicos, varias familias en la misma vivienda, calles llenas de barro... fue algo “tremendo”. “Lo que veíamos era desolador”, señala Lola Valverde. Uno de los primeros objetivos que se marcaron fue abrir una especie de escuela-guardería para que muchas madres pudiesen acudir a trabajar mientras sus hijos o hijas estaban recogidos. Es lo que se conoció como la “escuela de los cagones” que estaba situada en un bajo del bloque D de Santa Bárbara. De ella se encargaba una religiosa-seglar. El obispo Lorenzo Bereciartua vino a inaugurarla.

El domingo de Pascua de 1963, en un coche conducido por Ramón de Zavala, vizconde del Cerro de Las Palmas, llegan a Santa Barbara unos jóvenes que se encontraban estudiando en los seminarios de los jesuitas. Eran Luis Mari de Zavala y Miguel Sagüés. Venían acompañados por Lola Valverde, conocedora ya de la realidad en la que se encontraba el barrio. El objetivo de su visita era buscar un local donde instalarse en el verano para formar una comunidad de “curas obreros”, siguiendo el modelo que el padre Armentia había puesto en marcha en Bizkaia. Ven el local de la carbonería situada en el bloque A de Santa Barbara (actualmente Bar La Palmera) y deciden transformarlo en vivienda. Hablan con Nicolasa Pindado que vivía en el mismo bloque para que se encargase de las comidas y de las labores básicas de mantenimiento.

En el verano de 1963, hecha a andar esta comunidad de jesuitas, cuyo motor había sido el padre Ignacio Larrañaga, con los escolares Luis M^a de Zavala “Sabino” y Miguel Sagüés “Miguelón”, junto con el hermano Miguel Zubizarreta “Tzubi”. En su concepción de “curas obreros”, los tres se ponen a trabajar en fábricas de Pasaia. Miguel Zubizarreta en la fábrica Victorio Luzu-



Grupo de niños y niñas de la escuela-guardería de Santa Barbara (1964)

riaga, Luis M^a de Zavala en Bianchi y Miguel Sagüés en Astilleros Luzuriaga. Al tiempo, para continuar con su proceso de formación Luis M^a de Zavala y Miguel Sagüés dejaron Altza. Pero Miguel Zubizarreta, al que se le unió Javier Berriatua, continuó con su labor en Altza.

Durante estos primeros años de la década de los 60 también pasaron por la comunidad de Altza otros estudiantes en seminarios de los jesuitas como Carlos Caballero, José Luis Sansinenea o Fermín Aristegi. Este último, vecino alzatarrá, trabajó en Luzuriaga, y posteriormente fue dirigente de la Organización Revolucionaria de Trabajadores (ORT) falleciendo muy joven en un accidente de tráfico.

Una parte del trabajo que desarrollaron estos jesuitas en las barriadas de Santa Barbara y Roteta estaba dirigida a ofrecer alternativas de ocio tanto a las y los más pequeños como a las y los numerosos jóvenes que no tenían un espacio donde poder jugar y relacionarse al abrigo del barro y las inclemencias del tiempo.

En la vivienda, los jesuitas acondicionaron un espacio para que las cuadrillas de chavales del barrio jugasen y no estuviesen en la calle. En aquella época, dadas las condiciones en las que estaba el barrio, solo poder reunirse alrededor de una actividad en un local ya era todo un logro, señala José Ignacio Goñi. Se juntaban para charlar, jugar con juegos de mesa, en el billar, tocar la guitarra o ver la televisión, sobre todo los partidos de fútbol. En la mayoría de las casas no había televisión. Solo en algunos bares empezaron a poner televisiones en blanco y negro.

Además, organizaban charlas, daban clases o hacían salidas al monte. Las charlas eran de todo tipo como la que les ofreció “Pela” Arzak, jugador de la Real, como recuerda Timoteo Pérez. Aunque también intentaban ofrecer formación de cara a la vida e información de lo que estaba haciendo el régimen de Franco. Antonio Dávila señala que solían venir personas del PCE, que les hablaban de Radio Pirenaica y luego la escuchaban en casa con mucho cuidado por la noche en la cama.

La religión que impregnaba toda actividad social en aquella época tenía también su presencia, pero intentando romper los estrictos moldes de la iglesia católica del franquismo. Solían celebrar algunas misas en ese espa-

cio, pero con una estructura y contenidos diferentes a los que planteaba la iglesia católica oficial.

Hacia 1966, se produce una reorganización en la comunidad de los jesuitas en Altza al aumentar el número de sus miembros. Al piso del bloque A vienen a vivir más personas y el local para jóvenes deja de funcionar. Otros se realojan en diferentes bloques de Santa Bárbara. Además, con la apertura del local de la Asociación de Cabezas de Familia, se crea una Sección Juvenil, dedicando una parte del local a actividades para las y los jóvenes del barrio. Serán los comienzos del Centauro.

Referencias:

- [1] OLEAGA, Javier: "Diario de la parroquia de San Pablo".
En: Altza Hautsa Kenduz IX. Altza: Altzako Historia Mintegia (2007), pp. 185-201.

Centaurotik Gazte-Lekura: Familia Buruen Elkarte (3)

Del Centauro a Gazte-Leku: la Asociación de Cabezas de Familia (3) 

2023/07/20
Antxon Alfaro

1 964 urtean, diktadura frankistak, erregimeneko hainbat sektorearen artean eztabaida gogorak izan ondoren, Eliza Katolikoaren hierarkia barne, Familia Buruen Elkartearen eraketa arautzen zuen lege-proiektua onartu zuen. [1]

Urtebete geroago, 1965eko udan, Altza Barrutiko Familia Buruen Elkarte legez eratu zen. Bere lehen presidentea José María Fernández Zurdo izan zen, urte batzuk aurrerago Donostiako Udaleko zinegotzi izango zena. Ondoren, presidenteetako batzuk izan ziren: Félix Iranzo Expósito, Antonio Moreno Fernández, Felipe Martín Rodríguez...

1967aren hasieran Gipuzkoan eratutako 8 elkarteetatik, Altzakoa zen bazkide gehien zituena, 750 bazkide. Egoitza Errotetako 4. blokean zegoen, gaur egun Gurea elkarte dagoen lekalean. Elkartearen helburuetako batzuk, Julio Santosek bere liburuan jasotzen duen bezala [2], familia behartsuei laguntzea, agintariekin auzorako hobeak kudeatzea edota gazteentzako jarduerak antolatzea ziren.

Aipatutako azken helburuarekin, 16 urtetik gorako gazteentzako sail bat sortu zen elkartearen barruan, auzoko gazteak erakartzeko asmoz [2]. Gerturatu zen lehen koadriletako bat Santa Barbarako A blokeko lekalean jesuiteekin zegoena izan zen (Antonio Dávila, José Ignacio Goñi, Moisés de la Fuente, Andrés Bernués, Antonio Gutierro...). José Ignacio Goñik gogoratzen duenez, hasiera hauek ez ziren errazak izan, kostatu egin baitzen jendea erakartzea.

Antonio Dávila dioenez, gazteek Familia Buruen Elkartearen lokalaren herena zuten. Lehen urteetan,



Familia Buruen Elkartearen egoitza Errotetako jaietan (1968)

gune honetan haur eta gazteentzako jarduerak egiten ziren: filmen emanaldiak, hitzaldiak, jolasak... Lokala banatzen zuten bionbo lerragarriak kendu egiten ziren jarduera orokorrak egiten zirenean.

Antonio Gutierrok gogoratzen du gazte zentroko lehen presidentea izan zela. Hurrengo hauteskundeetan Antonio Gutierro berriro aurkeztu zen, baita Julio Santos ere. Bozketan Julio Santosek irabazi zuen. Antonio Gutierrok sorpresa handia hartu zuen, Julio ez baitzen asko ibiltzen lokalean. Hala ere, Juliok, garai hartan Luis Obreros taldean militantzia antolatua zuenak, gazte talde bat egituratu zuen bere inguruan, eta horiekin lortu zuen bozketan irabaztea. Julioren lehendakariak ez zuen luze iraun, handik gutxira utzi egin baitzuen, batez ere Vanguardia Obreraren jardueretan zentratzeko [2]. Julioren ondoren, José Ignacio Goñi izan zen Centauroaren presidentea.

Gazte-zentroari SAGUDAGO izena jartzea pentsatu zuten, Antonio Gutierrok gogoratzen duenez. Ideia Santos, Gutierro, Dávila eta Goñiren abizenetan oinarritzen zen. Izena ez zen onartu eta CENTAURO jartzea erabaki zen.

Joaquín Íñigo "Txolo"-k gogoratzen du egun batean Frente de Juventudes-eko kideak agertu zirela Errotetako lokaletik. Kirol elkarte bat antolatzeko aukera eskaini zieten, baita lokala billar mahaiarekin, futbolinarekin, ping-pong mahaiarekin, telebistarekin... hornitzeko ere. Edo, nahiago bazuten, Buenavistan zeukaten lokalera joatea. Eskaintza bikaina izan arren, erabaki zuten ez zutela beraiekin ezer jakin nahi. Lokalean jarraitu zuten jesuitekin harremanetan, autonomia eta ekintza-askatasun handiagoa ziurtatzen zirelako.

1967ko udan, Javier Oleaga San Pablo parrokia berriro bidali zuten. [3] Iritsi zenetik gazteekin lanean hasi zen. Jesuita honek kontatu zigun, denborak aurrera egin ahala tirabirak sortu zirela gazte-zentroaren eta Familia Buruen Elkartearen artean, gazteen atala gero eta gehiago kontrolatu nahi baitzuten. Estilo pertsonalengatik ez ezik, garai hartan Eliza Katolikoaren sektore aurrerakoien eta Erregimen Frankistaren egituren artean zegoena ere islatzen du lehia horrek, Familia Buruen Elkarteak erregimenaren parte ere baitziren. [1]

Egoera horren ondorioz, 1967ko azaroaren 6an bilerak egin zuten Familia Buruen Elkarteak, Centauroaren ordezkariak eta Javier Oleagak. Bertan, elkartearen lo-

kala tabike batekin zatitzeko akordioa lortu zen, gazte-zentroaren erabateko autonomia lortzeko. Zegozkien gastuak, 97.300 pezeta, hilean 2.500 pezeta ordainduko zirela erabaki zen, 2 urtez. [3] Lokal berri honetan neskak ere sartzen hasi ziren.

Centauro elkartearen, José Luis Goñik dio ez zirela jarduera asko egiten. Hitzaldi batzuk antolatzen ziren, futbol partidu batzuk koadrilen artean edo hondartzako talde bat ere eratu zen. Errotetako jaietan ere, “Serranito” elkarteak antolatuta, parte hartzen zuten. Baina esanguratsuen eta bitxiaren errugbi talde baten eraketa izan zen.

* * *

Erreferentziak:

- [1] COBO PULIDO, Pedro (2001): “Las asociaciones de cabezas de familia como cauce de representación: un fallido intento de apertura del régimen franquista”. In: Espacio, Tiempo y Forma, Serie V, Historia Contemporánea, 14, 437-488 orr.
- [2] SANTOS, Julio (2012): El viaje (Memorias). Vitoria-Gasteiz: AA Ediciones.
- [3] OLEAGA, Javier (2007): “Diario de la parroquia de San Pablo”. In: Altza Hautsa Kenduz IX. Altza: Alzako Historia Mintegia, 185-201 orr.

Del Centauro a Gazte-Leku: Celso Vázquez y el rugby en Altza (4)

Centaurotik Gazte-Lekura: Celso Vázquez eta errugbia Altzan (4) 

2023/09/16
Antxon Alfaro

Al hablar del equipo de rugby del Centauro es obligatorio referirnos a una persona sin la cual es casi seguro que el rugby no hubiese tenido su pequeña historia en Altza. Esa persona era Celso Vázquez Gallego.


Bestetik, **Joan Mari Irigoien** altzatar idazleari aitortza ekitaldia eskainiko diogu. Altzagainan izango da, Altzako udaletxean, abenduaren 2an. Goizeko 10:00etatik 13:00etara Joan Mari Irigoien Babilonia liburuen irakurketa publikoa egingo da Altzako udaletxean eta denok gonbidatuak zaudete irakurketan parte hartzea. Horretarako gurekin harremanetan jarri bizarrain@altza.net helbidean edo galdetegi hau bete dezakezue. Jarraian, aitortza ekitaldia egingo da San Martzial plazan eta inguruko txoko batean bi zuhaitz landatuko ditugu.


Horiez gain, jarduera ugari antolatu dira Euskararen egunaren inguruan. Abenduaren 1ean, ostirala, **Bolo txapelketa** Arrobotxulon, 19:00etan. Beste guztiak 2an izango dira, larunbatean:

- **Pala-partidak**, Herrerako frontoia, 09:00
- **Kantu-jira**: Herrera kantuz, Herreran zehar, 12:00
- **Egurrezko jostailuekin jolasean**, haur eta helduentzat, San Luis Gonzaga plaza, 12:15
- **Bazkari herrikoia**, Herrera Kirol Elkarte, 14:00
- **Puzgarriak**, Herrerako frontoia, 15:30
- **Joko-ekintzak**, Haur eta gazteentzat, Altzako Haurtxokoaren eta Gaztelekuaren eskutik Herrerako frontoia, 17:00
- **Jar dezagun teknologia euskaldunon alde**, Informazio-gunea: Jarri mugikorra euskaraz; Jarri nabigatzailea euskaraz; gaitu.eus. Herrerako frontoia, 17:00
- **Familiarekin jolasean**: euskaraz jolasean, Bidebietako Haurtxokoa, 17:00
- **Hitzen lehiaketa**, Bidebietako Gaztelekua, 17:30
- **Pailzoak**: Potx eta Lotx aireportuan (6 urtetik gorakoenzat), Larratxo kultur etxea, 18:00
- **Muxikoak**, San Luis Gonzaga plaza, 18:45
- **Kontzertua**: Fan&Go erromeria, Herrerako frontoia, 19:30
- **Dj Lumaordin**, Haur eta helduentzat, Herrerako frontoia, 22:30

Altzanet renovada y nuevo logo de AHM

Altzanet berritua eta AHMren logo berria (🖥)

2023/11/20



Seguir adelante y realizar los cambios oportunos. En Sello estamos y les ha tocado el turno a dos elementos importantes de nuestra asociación, el logo y la web Altzanet. Con los cambios hemos buscado una imagen de mayor sencillez, claridad y utilidad, conservando en el caso de la web los contenidos y la estructura en la que estaban organizados.

Son muchos los contenidos que se han creado y recopilado a lo largo de casi cuatro décadas de actividad en torno a Altzako Historia Mintegia. Podemos decir que con el tiempo se ha dado forma a un pequeño tesoro al servicio de todas y todos los interesados en temas altzarras. Y Altzanet es el sitio que le da cobijo.

El primer sitio web de la historia se crea en 1991 y AHM salta a Internet en 1996; nacerá Altzanet. Des-

Altza Hadi!

14 EGUNEZ EUSKARAZ BIZIKO GARA
Azaroak 20tik - Abenduak 3ra

Eman izena **Ahobizi** edo **Belarri-prest** izateko



Ahobizi
izan nahi dut

<http://www.altzahadi.bizarrain.eus/ahobizi/>





Belarri-prest
izan nahi dut

<http://www.altzahadi.bizarrain.eus/belarriprest/>



ALTZAHADI.BIZARRAIN.EUS

de entonces Altzanet ha ido creciendo y actualizándose, siempre con mimo y buscando ser lo más accesible y atractiva posible.

Seguir adelante y realizar los cambios oportunos. Estamos más que satisfechos con los cambios que acabamos de hacer y esperamos que a vosotras y vosotros también os gusten. Aurrera!

Altza 2024 egutegiaren aurkezpena

Presentación del calendario Altza 2024 (📅)

2023/12/01

Datorren **abenduaren 15ean**, ostirala, “**Altza 2024**” egutegia aurkeztuko dugu **Tomasenen**, arratsaldeko **7:00etan**.

Urte berriko egutegiaren protagonistak **gertuko komertzioak** izango dira. Argazkiak biltzeko orduan azken bost bat hamarkadetan Arrizar, Arriberry, Erroteta eta Santa Barbarako auzoetan lan egin duten komertzioetara mugatu gara. Argazkiak utzi dizkigutenak hauek dira: Zugasti Jantziak, Calzados ZM, Peñuelo Liburu-denda, Foto Cano, Pastelería Carmentxu, Comestibles Vidal, eta Elizondo, La Cepa eta La Palmera tabernak. Utzitako argazki guztien artean lau aukeratu ditugu paretako egutegirako eta beste bat poltsiko egutegirako, baina bildutako material guztia Altzako Tokiko Bilduman gorde eta ikusi ahalko da.

Aurkezpenean hainbat dendarik parte hartuko dute eta haien bizipenak gerturatuko garenekin partekatuko dituzte.

Egutegia nahi duten eta bertaratu ezin diren pertsonen argitalpenarekin lagundu dutenen bidez eskura dezakete, –**Erdikoa taberna, Nido eta Zumardi tabernak, Lizarra Kanpina, Herri Ametsa Ikastola, Peñuelo liburu-denda, Zugasti Jantziak, ZM zapata-denda, La Palmera taberna**– edo **AHM**rekin harremanetan jarriz **649496607** telefonoan edo **ahm@altza.net** posta elektronikokoaren bidez.

Egutegiaren aurkezpenarekin batera, ekitaldiaz baliatuko gara estreinatu berri dugun **AHMren irudi eta webgune berrituaz** hitz egiteko. Bertan elkar ikustea espero dugu.



KRONIKAK (EGUNGOAK) / CRÓNICAS ACTUALES



Santa Ageda, Kaldereroak

Santa Ageda, Kaldereroak (📅)

2023/02/07

Herripe Auzo Elkarte

Un año más, las vecinas y vecinos de Herrera se han unido para pasear por el Barrio haciéndonos disfrutar de las canciones de los Coros de Santa Ageda y de la Comparsa de caldereros. Santa Ágeda por la mañana y Kaldereroak por la tarde del sábado 4 de Febrero, nos animaron y no poco.

Es bonito ver cómo se retoman las costumbres. Es

gratificante comprobar cómo personas que se conocen desde hace muchos años son capaces de organizar y tomar parte en estas actividades en un Barrio que no recibe de las instituciones el respeto que se merece. Ver cómo a pesar de ello, son capaces de contagiar a los que les vemos, su alegría, su buen humor, su fuerza para mantener las tradiciones de una manera natural, como lo han sido siempre, y cuando se retiran nos dejan una sonrisa en los labios y la sensación de que momentos que merecen la pena.

Aurtengo Batzarra

La Asamblea de este año (📅)

2023/03/17

Oso giro atseginean, atzo, hilak 16, **AHM**ren urteko Batzarra egin genuen Tomasenen, iazko jarduera eta kontuen erreposoa egiteko. Estibaus buletina banatu genuen, eta bertan jasota geratuko da guztia (hemen deskargatu daiteke).

Elkarteak garatutako jarduerari buruz egiten dugun balorazio orokorra oso ona da, nahiz eta hobetu beharreko alderdi asko ikusten ditugun beti. Une honetan, AHMren jarduerak 194 bazkideren babes garrantzitsua du. Batzarrean 25 kide elkartu ginen, eta beste bazkide batzuk ere nolabait egon ziren, arrazoi ezberdinengatik ezin izan zirenak bertaratu.

2023an egingo ditugun jarduerari buruz ere hitz egin genuen, iaz egindakoaren ildotik (ibilaldiak, Naturaldia, Tokiko Bilduma, Lekukoak, Ganbara), eta, ohi bezala, horien berri izango dugu Estibaus blogaren bidez. Aurtengoa ere gutxienez aurrekoaren bezain oparoa izan dadila nahi genuke.



Campeonato de Mus Euskal Giroa

Euskal Giroa Mus Txapelketa (📺)

2023/03/27

Euskal Giroa Elkartea

Han sido 64 las parejas inscritas en la edición 37 de Heste Campeonato. Hemos visto un ambiente distendido antes de que cada pareja se preparara para ganar con la seriedad y concentración que exige este juego.

Se han celebrado las partidas de lunes a jueves con la final el viernes 24, dando paso a una cena a la que asistieron más de la mitad de los jugadores. La participación femenina ha tenido un discreto papel pero al mismo tiempo ha sido importante porque su presencia asegura, poco a poco, la participación de la mujer en esta actividad. Por ello, nuestro especial reconocimiento para Laura Martínez Martínez, Marisa Achaga Irazustabarena, Pilar Almonacid Zabala y Naroa Azurza Carnés.

- 1º premio: Ignacio Bombín - Juan Pablo San Miguel
- 2º premio: Antonio Campanera - Luis Carretero
- 3º premio: Patxi Castaño - Nino Mateos
- 4º premio: Emilio Cornejo - Milel Olaziregi

Desde la Comisión de Mus de Euskal Giroa agradecemos sinceramente la colaboración de los patrocinadores, de los propios participantes y de los socios por su comprensión por entender la importancia que tiene la celebración de estos eventos.



Esperamos vernos en la próxima edición que superará a la precedente y confiamos contar con una mayor participación de mujeres. Sabemos que hay muy buenas muslaris que lo pueden demostrar.

Kantujira Herreran

Kantujira en Herrera (📺)

2023/05/29

Euskal Giroa Elkartea

Joan den maiatzaren 27an, larunbata, Euskal Giroan egindako bazkari batek Kantujira taldeko kide gehienak bildu zituen. Urtez urte, udazkenean hasten dira entseguak eta ibilaldiak Herreran, udal erakundeak aspaldidanik finkatuta dituen zentzurik gabeko mugak kontuan hartu gabe. Herreratik paseatzen dira, jendearekin gelditzen dira, jendea dibertitzen da eta horrek guztiak bizitza eta giroa ematen dizkio gure Auzoari.

Ohi bezala, salbuespen bat egingo dute ekaineko jaietan, eta jai giroarekin bat egingo dute berriro, umore onez eta abesti polit eta ezagunez betez.

Ez zaigu erraza egiten gure esker on osoa adieraztea parte hartzeagatik, desinteresatua eta eskuzabala; izan ere, batzuetan badirudi jarduera bera besterik ez dugula hizpide, baina askoz gehiago da, joan-etorrian elkar ezagutzea da, irribarre egitea da, dibertitzea da, auzoa egitea da, gero eta gehiago faltan botatzen den zerbait, gure ustez hain beharrezkoa dena lan egiteko eta gure ingurua zaintzeko.



Soka-dantzaren ohitura berreskuratuz

Recuperando la tradición de la soka-dantza (📺)

2023/07/07

Altzan, hainbat herritan bezala, usadioa zen jaietan udalbatzak soka dantza eskaintzea herriari errespetua eta herriarekiko gertutasuna azaltzeko.

Altzak herri izaera galdu eta Donostiara anexionatua izan zen geroztik ez zen egon aukerarik berriro soka dantza herriari eskaintzeko.

Aurten, ekainak 29an garai hartako udalbatzak omendu eta hainbeste urtetan galduta egon den ohitura berreskuratuz nahi izan dute Altzako San Martzial jaietan, horretarako Ekialde Barrutiko hainbat juntakidek, elkarteen ordezkariak eta alderdi politikokoek bertan parte hartu dute, Altzatarra Elkarteak festa antolatzailearen gonbidapenari erantzunez.



Para Paco

Pacorentzat (📺)


2023/10/03

Nos alegra saber que Paco Sagarzazu ha recibido el premio del cine vasco, en el Zinemaldia de Donostia, que acaba de terminar. Es un reconocimiento que merece por su dilatada carrera en el teatro, cine y televisión, si bien él, siguiendo su línea, lo ha querido compartir con sus amigos. Es difícil de olvidar aquel “El Florido Pensil” del Grupo Tanttaka que reflejaba, en clave de humor, una época dura de la enseñanza, algo que los que podemos recordarlo todavía lo hacemos con una sonrisa, gracias a la versión irónica del grupo de Pako.

Su faceta de escritor, puso en nuestras manos “Para no sé quién”, premio Ciudad de Irún 1977, con ambiente local, fácilmente reconocible. Uno de sus capítulos, “De reclamo”, está recogido en la colaboración “Aquellos tiempos que hizo para Altza, Hautsa Kenduz VII (2003). Leerlo es trasladarnos a muchos de nosotros a una época, a veces ya lejana y otras, cuando la revivimos, que parece no haberse alejado tanto. En su colaboración, él lo señalaba así: “lo que sigue es una imagen de los años 50/51,

cuando Herrera y Alza, sitios queridos, eran de otra manera. O me imagino yo que era todo distinto y no lo era, y es todo ahora mismo como tiene que ser, a pesar de mí”.

Paco, sin duda, ha recibido un importante galardón desde ámbitos más importantes que el nuestro, pero nosotros, en Altza, no queremos dejar pasar esta oportunidad para resaltar el factor humano del actor y del escritor. Nos tiene acostumbrados a cruzarnos con él por la calle, a recibir su sonrisa, su saludo con esa actitud sencilla, prudente, casi tímida y, cuando le hablas, parece que se interesa especialmente por lo que le estás diciendo. Es entrañable y discreto. Y no es de ahora, porque siempre lo hemos conocido así. Lo que ocurre es que por eso no le dan a uno un trofeo en las ambientes altos, pero para nosotros, para la gente de a pie, tiene mucho más valor.



La reunión sobre el proyecto de Zardoya-Otis en la cantera de Herrera

Herrerako harrobian egin nahi duten Zardoya-Otisen proiektuari buruzko bilera (📺)

2023/10/05

Osteguna Auzo Elkarteak

Por segunda vez en un corto espacio de tiempo, hemos escuchado a la Concejala de Urbanismo, a la empresa encargada del proyecto, popularmente conocido como el proyecto Zardoya Otis y en la última parte de la reunión, a un jurista municipal. La sala de Tomasene estaba a rebosar y tras los diez primeros minutos de empezar los técnicos a hacer su exposición, el aforo se dio cuenta que la reunión era la misma que la vez anterior. Ni una inclusión de todas las aportaciones que se hicieron entonces, es decir, más de lo mismo. Se vio claramente que la única intención era cumplir esos trámites tan llevados y tan sin contenido, a los que parece que la ley les obliga. En corto, a darnos el recado, una vez más, de lo que iban a hacer y además, hacerlo dos veces, por si no lo habíamos entendido la primera vez.

Así que el público pasamos a las preguntas concretas, que no fueron contestadas porque no entraban en sus intenciones, Los componentes de la mesa justificaron su proyecto en la búsqueda del bien de la gente, de la necesidad de vivienda, de un 40% de VPO, que se convertía en la frase siguiente en un 20% libre y 20% tasada. Alguien preguntó por qué, si tanto miran por la vulnerabilidad de las familias, no enfocaban un 60% de VPO y un

40% de libre disposición. Eso no, porque entonces no era viable. Se pidieron también explicaciones sobre aparcamientos, accesos, conexiones, etc. Las respuestas fueron lamentables, penosas decían algunos, Incluso hablar de por qué los cinco mil metros cuadrados de la zona verde que la ley obliga a definir iban a Erregenea (Igeldo) y no se quedaban en la zona, no tenía contestación.

Las aportaciones de los grupos sociales Altza XXI, Herringe, de miembros de la Junta del Distrito fueron acertadas, certeras, y con conocimiento, pero la palma se la llevó el público altzatarra, con argumentos, con expresión de su cotidianidad, con propuestas jóvenes inteligentes. Hacía tiempo que no veíamos en Altza una reunión convocada por el ayuntamiento con tanta fuerza y saber hacer por parte de los asistentes.

Sin embargo, la experiencia nos ha dicho en las últimas décadas, que los organismos públicos no están acostumbrados a que se les ponga cortapisas. Entienden que la participación ciudadana debe ser sumisa, sobre todo en lo esencial y desde luego, debemos contentarnos con que se nos comuniquen los acuerdos ya tomados. Pero ayer se les demostró que el proceso debe ser inverso, que se tiene que consultar a la ciudadanía, sobre todo a la directamente involucrada, antes de la toma de decisiones.

Ahora habrá que estar pendientes para presentar alegaciones en el período que se marque y no fiarnos de buenas palabras y sí de decisiones firmadas por ellos y corroboradas por nosotros.



Sagardo Egun feminista

Feria feminista de la sidra (📄)

2023/10/22

Ekialde Barrutiko Berdintasun Lantaldea

Gaur egun Ekialdeko Barrutia hartzen duten eremuak sagarrondo ugariz beteta egon dira historikoki.

Bere baserri asko, gaur egun desagertuak, sagardoa ekoizteko tokiak izan dira, familiaren autokontsumorako eta baita salmentarako ere.

Baserri horietako batzuk sagardotegiak izan ziren, non emakumeek ukondo ukondo lan egiten zuten gizonekin, uzta jaso eta lekuz aldatu, sagardoaren zukua tolarean egin, saldu, zerbitzatu...

Gerra garaian, gizonak ez zeudenean, haiek izan ziren sagardoa egiten jarraitu zutenak.



Lan horiez gain, baratzeak ere lantzen zituzten eta uzta merkatuan saltzen zuten, abereak gobernatzen zituzten, janaria prestatzen zuten, etxea eta arropa garbitzen zituzten, semealabak zaintzen zituzten, gaixorik zeuden pertsonak eta familiako adinekoak zaintzen zituzten.

Sagardoaren azoka feminista honetan emakume hauen ezkutuko lan eskerga eta gizarteari egindako ekarpena baloratu nahi dugu, baita publikoki aitortu ere.

Une honetan, honako hauen berri izan dugu: Txingurririko (Herrera) Errotazar sagardotegiko Emerita Tolaretxipi, Intxaurrendoko Pellizar sagardotegiko Pakita eta Angeli Anabitarte, Intxaurrendoko Haundi baserriko Maria Luisa Ezeiza Galardi, Otxoki baserriko Carmen Lazkano Loidi eta Ricarda Matxain Echarri. Bidebietako Matxain Etxekoa. Baina itzalean beste asko daude.

Horien bidez, Altzako antzinako udalerriko emakume sagardogile guztiei gure aitortza adierazi nahi diegu. Baita egungo sagardogileei ere, berdintasunaren aldeko borrokan babesten duguna.

Eskerririk asko zuei ere gurekin egoteagatik.

“Ganbara eta tolare”, Miren Artetxe Sarasola

Ganbara eta tolare
Baserriaren zutabe
Sagardo tanta bat ez legoke
emakumeen lanik gabe

Etxean zein lantegitan
edo sagardotegitan,
itzalpeko lan asko egin da
eguzkiaren argitan

Errezila, Merkalina
Maximela, Geza Mina
Izerdi tanta denek ez dute
nonbait balio berdina

Zakua eta kixkia
morkotsa eta saskia
Lehenago ere merke saltzen zen
emakumeen astia

Lurrean sagar ustela
Sagardo lepoko kupela
Eta arropa uste al duzue
bakarrik garbitzen dela

Sustraia eta adarra
Haur txikiaren negarra
Sagardoa ez zen emakumeek
egiten zuten bakarra

Añarbe, Burni Makatza
Azoka eta baratza
Orduko andreek ez zuten siestan
denbora askorik pasa

Piku-sagarren txortena
Bolanderaren kirtena
Eta atean zizelkatuta
senarraren abizena

“Sagardoaren txinparta!”
“Txuleta ere aparta!”
Aurrez mahaiari andreren batek
Eskutrapua pasata

Kupela eta kanila
Eskutrapu ta botila
Ta zenbat esku zerbitzarien
Izter guriaren bila

Maria Luisa, Emerita,
Angeli, Carmen, Pakita...
Ta beste zenbat historiaren
mantapean estalita

Lanean hainbeste urte
Ahanztura baten truke...
Haien lana ez zen ikusezina
Ikusezin egin dute

Arto eta sagarrondo
Haiek bazekiten ondo
Eta ez ziren sagardo pixkat
Probatu gabe egongo

Beraz gaur egigun topa
besoak gora igota
Emakumeon memoria ere
Gure eskutan dago ta!

Argazkiak eta bideoa ikusteko /
Ver las fotos y los videos



Herrera Kantuzen kantujira

Herrera Kantuzen kantujira (📄)

2023/11/29

Euskal Giroa Elkarte

Zalantzarik gabe, kantujirak igarotzen diren lekuetan giroa arras animatzen da, baina guretzat animatze



hori bi aldiz garrantzitsua da, gure auzoko eguneroko gizarte-giroa nola aldatzen ari den ikusita. Izan ere, egungo bizitzeko moduek eta baita azken hamarkadetan ezarri diren hirigintza-neurrien eragin handiak ere, sektoretan banatutako auzo bat taxutu dute, batez ere pasagune gisa definituz.

Hala ere, une batzuetan zerbait agertzen da, zentzugabekeria horren gainetik herritarren onena sortzen da. Hori Kantujira da. Musikaren bidez, kultura, kide-tasuna, adiskidetasuna eta esker ona transmititzen dira. Berrogeita hamar bat bizilagunek abesten digute, umore onez eta harmoniaz, ahaztu gabe horren atzean beti dagoela norbait antolatzen duena, abestiak aukeratzen dituen, denbora libre gaizak ondo egiten ematen duena.

Dagoeneko gozatu dugun azaroko hileroko irteeraz gain, Herrerak bat egiten du abenduaren 3ko Euskara Egunarekin, eta egun garrantzitsu horren atariko gisa, abenduaren 2an, larunbata, Euskal Giroan motorrak berotzeko hamaiketako egin ondoren, eguerdiko 12etan ohiko ibilbideari ekingo diote, Herrera K.E.k prestatuko duen bazkariari bidea irekiz. Larunbat honetan ez da ezer faltako igandea eta **EUSKARA EGUNARI** sarre-
ra emateko!!!!

Navidad en Herrera

Gabonak Herreran (📄)

2023/12/23

Herripe Auzo Elkarte

Un año más disfrutamos del bonito nacimiento preparado en Gaiztarro. Ahí estará hasta después de Reyes, flanqueado por las dos elegantes moreras que nos marcan el camino y unas bonitas y alegres figuras trabajadas con cariño, cada vez más numerosas y custodiadas por personas que velan para que estén siempre de manera que consigan la sonrisa de toda la chavalería que pasa por ahí. Si el viento las tira, si alguna mano no

deseada las estropea, ahí están ellas para repararlas. Es una iniciativa de comercios y vecindario de la zona que no decae y que no necesita más que interés, amistad y buena voluntad, SIN intervención oficial uniendo a la gente en un interés común.

En esta línea de intervención está también la kantujira. El último ensayo del día 13, Santa Lucía, fue en sí mismo un encuentro de vecinos, y vecinas, con buen humor y amenas conversaciones

Estas dos iniciativas coincidirán el viernes 29, y forman parte a su vez, de una serie de encuentros preparados para celebrar estas fechas navideñas.

Poco a poco nuestro Barrio va recuperando una convivencia que el rápido y descontrolado desarrollo había dificultado. A través de estas iniciativas que esperamos



se vayan incrementando a lo largo del año, podemos reconocernos en un mismo entorno y eso ayuda sin duda a la mejora de una calidad de vida que, según las estadísticas oficiales, no tiene un buen sitio en el ranking del buen vivir de la ciudad de la que formamos parte.

IRITZIAK

Atxumaizkogainako mugarriaren gaurkotasuna

Actualidad del mojón de Atxumaizkogaina



2023/03/10

Atxumaizkogaina muinoan, Ulia eta Mendiola gailurrean artean, Altza eta Donostia arteko mugarria dago. Mugarri berezia da. Kokapen nabarmena dauka eta harkaitzean zizelkatutako bakarra da. Horrez gain, bertatik abiatzen da, itsasoraino zuzen jarraituz, Donostia hiriaren eta Altzako Herriaren artean 1896an adostutako azken mugaketa-zatia. [1]

Bere garaian gogoratu dugun bezala, duela 200 urte, 1821 eta 1823 artean, Altza udalerrri independente bihurtu zen lehen aldiz. Donostiako Udalak ahalegin guztiak egin zituen hori eragozteko, besteak beste, Gipuzkoako Aldundiak udal terminoak zehazteko egin zizkion errekimenduei jaramonik egin gabe. [2] Azkenik, 1823ko martxoaren 13an, Pedro Manuel de Ugartemendiak, Aldundiaren enkarguz, Donostia eta Altzaren artean egon behar duen banalerroa eta mugarria jasotzen zituen idazki bat eman zuen, zegokion planoarekin batera. [3] Lehen mugaketa hura ezin dugu xehetasunez ezagutu, espedientetik desagertu delako; desagerpen horrek ez gaitu harritu, lehenago ere ikusi ahal izan baitugu hori gertatu dela segregazioari buruzko garai honetako beste txosten batzuekin. [4]

Urte horretan bertan, Espainiako aldaketa politikoa-ekin, Altzak independentzia galduko du eta aurreko estatusera itzuliko da, kontzeju propioarekin baina hiriaren menpe. Altzak 1879an independentzia berreskuratu zuen, eta, hamar urte beranduago, 1889ko abuztuaren 30ean argitaratutako Errege Dekretu batek Udal guztiak jurisdikzio-eremuak mugatzera behartzen zituzenez, mugarri guztiak finkatu ziren, Atxumaizkogainako



mugarriaren eta itsasoaren artekoak izan ezik, Donostiak Mendiolan Ulia mendiaren iparraldeko isurialdea kontserbatu nahi baitzuen. [5] Azkenean, lehen adierazi dugun bezala, 1896an, Atxumaizkogaina eta itsasoaren artekoa adostuz, behin betiko muga erabaki zen, Espartxo baserritik, Urumearen ertzean, itsasoraino, Illurgita senadian, Atxumaizkogainako tontorretik igarota.

Mugaketa hori 1939an berritu zen, Gerra Zibila amaitu eta gutxira, eta Altza Donostiarekin bat egin baino hilabete batzuk lehenago. Bategite horren oinarrien arabera, Alza-Buenavista barrutia sortu zen udal-mugarte hartzen zuen eremu osorako, frankismo osoan eta ondorengo urteetan funtzionatuko zuen administrazio-figura. Era berean, anexionaren oinarrietan aurreikusten da Altzako Udalari bere ondarea, udal terminoa barne, berriz ere integratzea, banantze baten kasuan. [6]

2003. urtean, Udalak hiriaren zonifikazio berri bat egin zuen, sailen lurralde-irizpideak bateratzeko, eta ho-

rrren ondorioz, gaur egungo auzoen mugaketa zehaztu zen. Udalerrri altzatarra, antolamendu horren arabera, hainbat auzotan banatuta dago: Altza, Mirakruz-Bidebieta, Intxaurren, Martuteneko zati bat (Sarrueta), Loiolako zati bat (Ametzagainako hegala), eta Ategorrieta-Ulia zati bat (Arzak eta udal mintegien artekoa, eta Atxumaizkogaina mendia). Herritarrek ez zuten parte hartu prozesuan. Ez ikusiarena egin zioten Historiari.

Elkarte talde batek Barruti bat sortzea aldarrikatu zuen 2005az geroztik, "Orain da garaia: Distrito Este", Donostiako ekialderako (antzinako Altza Herria) barruti bat eratzeko proposamen batekin. Hamar urte igaro beharko dira, 2015eko martxora arte, Udalaren Osoko Bilkurak Donostiako Barrutietako Erregelamendu Organikoa onar dezan. Erregelamendu horretatik sortuko da Ekialdeko Barrutia. Barruti hori Altza, Mirakruz-Bidebieta eta Intxaurren auzoak osatzen dute, eta 2018tik dago martxan. Udaleko ordezkari politikoak eta altzatar elkarteetako ordezkariak konprometitu gaude horretan.

Atxumaizkogainako mendiaren zati altzatar osoa, Udalak Ategorrieta-Ulia auzoan sartu du, Mirakruz-Bidebietaren orde, eta Ekialdeko barrutitik kanpo geratu da. Baina Altzan ez dugu galdu Donostiako Udalak lurperatu nahi duen ikuspegi historikoa. Azken hogeitau urteetan Atxumaizkogainako mugarría goroldioz estali da eta pinuz eta sastrakaz inguratu da, baina mugarría zizelkatuta dagoen harkaitzak han jarraituko du eta altzatarrok haren ondotik igarotzen diren bidexkak zehar katzen jarraituko dugu, badakigulako nondik gatozen.

Erreferentziak:

- [1] 1896. Donostia eta Altza arteko muga mugaketaren plano, SS.56-A.9 mugarritik SS 57-A.10. Donostiako Artxi-bo Historikoa (DUA-AMSS), H-01691-16.
- [2] 1821-12-8: Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostiako Udalarí jakinarazi zion terminoak seinatzeko espediente bat ireki zela (DUA-AMSS C-5-I-6-2). 1822-02-13: Gipuzkoako Foru Aldundiaren dekretua, Alzako mugapeari buruzkoa (DUA-AMSS C-5-I-6-2). 1822-03-30: Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostiako Udala premiatu zuen Alzarekiko mugaketaren gaian (DUA-AMSS C-5-I-6-2). 1822-07-24: Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostiako Udalarí emandako ebazpena, banaketa eta ordainarazpenei buruzkoa, Alzarekiko mugak ezartzen ez diren bitartean (DUA-AMSS C-5-I-6-2).
- [3] 1823-03-13: Pedro Manuel de Ugartemendiak Diputazioari zuzendutako idazkia, Donostia eta Altza artean egon behar duen banalerroarekin eta mugarríarekin, dagokion planoarekin. AGG-GAO JDIM4/12/0037/A/005400r.
- [4] "200 urte Alzak lehen independentzia lortu zuenetik (1)", in Estibaús 2021-10-29.
- [5] 1889-11-07: Donostia eta Alzaren arteko mugarríztatze akta: En virtud de lo decretado por Exmo. Gobernador Civil de esta Provincia con fecha 21 del actual y no hallando conforme la Comisión de límites de esta Población el acta de deslinde extendida por la de San Sebastian acuerda redactarla por su parte en los termino siguientes. [...] Mojon nº 56. En el punto denominado Achumaizco-Gaña a la dis-

tancia de 610 m. de la esquina de la casa del Depósito de aguas señalado en una roca arenisca tiene la marca SS56 y A9. Formando con citada esquina y el nº 57 señalado por la comisión de San Sebastián un ángulo de 108°. Mojon nº 57. Se halla situado a los 970 ms del mojon nº 56 bajando desde el directamente hacia el mar. Es de piedra arenisca y tiene cincelada en su parte superior una línea que indica perfectamente la dirección entre el mojon nº 56 y la costa, línea que determina las jurisdicciones de Alza y San Sebastian. Tiene las marcas SS57 y A10. Con lo que se terminó este reconocimiento que comprende los límites jurisdiccionales de San Sebastian con los de la población de Alza en 7 de Noviembre de 1889.

El Presidente: / El Vocal: Jose Jacinto Labaca / El Vocal: Rufino Erausquin / El Secretario: Casimiro Arizmendi

- [6] Bat-egitearen/anexioaren oinarriak, 4. puntuak: "Únicamente, y en previsión de la remotísima eventualidad, de una futura desagregación del Municipio de Alza para constituir nuevamente Municipio independiente, se procederá por el mismo a la formación y oportuna entrega de un inventario de los bienes comunes y patrimoniales que se aportan para su reintegración a dicho Ayuntamiento en el caso de separación. Así bien, se hace constar que con los bienes dichos, el Ayuntamiento recobrará en su día el territorio mismo que hoy día constituye su término municipal y se halla afecto a su jurisdicción, sirviendo de linderos y límites los actualmente vigentes."

Informe de la presentación del proyecto Zardoya Otis a la Junta del Distrito Este

2023/03/20

Elena Arrieta, Osteguna Auzo Elkarteak

REUNION CONVOCADA POR LA CONCEJALIA DE URBANISMO A LA JUNTA DEL DISTRITO ESTE.

ASUNTO: Presentación Proyecto Zardoya Otis (LARDI ALDE) - HERRERA

Sala de reuniones Tomasene - Casares - 19h. martes, 14.03.2023

- Nekane Arzallus. Concejala de Urbanismo.
- Juan Carlos Cuevas. Director de Urbanismo.
- Jose M. Abad - Servicio Jurídico
- URBEN ARQUITECTOS - CONSULTORÍA - Diseñadores del proyecto que se nos presenta.

Se nos ha ido explicando el diseño que ha sido realizado teniendo en cuenta las dificultades, de la zona, y las posibilidades que han podido darle.


Se ha hecho una exposición detallada del proyecto que está en sus primeras fases. Las asociaciones presentes hemos expresado nuestra preocupación porque no hayamos sido escuchados antes de proceder al diseño.

- No nos gusta el diseño en la zona que linda con Ermita Bidea porque los nuevos edificios cierran innecesariamente toda la visión a las casas existentes.
- No existe una solución del acceso a la parte baja de Herrera como no sea lo actualmente existente -escaleras Renfe y nuevo ascensor en el mismo punto- Hay que tener en cuenta que ya ahora es un problema ese acceso y el ascensor, que aún está en construcción, va a unir los dos extremos del túnel pero dependemos totalmente de Renfe/Adif. A pesar de la separación que el ayuntamiento tiene por costumbre de establecer entre la zona existente y el nuevo proyecto, insistimos en que la actuación urbanística se va a hacer en Herrera y que la conexión con el Topo, Lurraldebus, Trintxerpe, tiene que existir de una forma más amplia que lo que se ve. Ante su reconocimiento del hecho, se disculpan porque la conexión no está en el campo de actuación del proyecto. Señalamos de nuestra parte, que ya se han preocupado de establecer esas conexiones con la parte alta de Roteta.
- Manex Raya, Xenki Berho y Jose Ángel Apaolaza han intervenido en diferentes ocasiones, puntualizando muchas diferencias durante todo el proceso de este asunto, desde los convenios iniciales Zardoya Otis/Ayuntamiento, y el posterior proceso, en el que se ha tenido a la Junta del Distrito apartada por completo.

Como justificativo a las decisiones adoptadas, la concejala Arzallus señala la importancia de gestionar para que Otis no se vaya a Chequia y salvar los 200 puestos de trabajo. Esa es su prioridad. Se le contesta desde las asociaciones que ese "salvamento" no se puede asegurar. De hecho se les pregunta si saben cuanta gente está ahora en nómina y se señala que no se puede evitar que, si dentro de unos años, se quieren ir a Chequia o a cualquier otro país, se irán y la situación en Herrera se habrá quedado como una apetitosa ganancia para esa empresa. En cualquier caso la prioridad de la Concejala no puede justificar que Altza tenga que aceptar unas medidas que van a condicionar al nuevo vecindario y perjudicar claramente al existente.

Se nos explica que ahora no están más que en el primer diseño del proyecto, que tiene que pasar por diferentes escalas y conseguir el informe medioambiental del Gobierno Vasco, con informes ampliatorios de Movilidad, Igualdad, Euskera, accesibilidad, etc. De manera informal, consideran que será para la siguiente legislatura.

A nuestra petición nos mandarán alguna información del proyecto. (A la altura de la redacción de este informe, ya lo hemos recibido.)



OTROS DATOS

Planean unas trescientas y pico viviendas, frente a las casi quinientas que dijeron la última vez, reduciendo la altura de los bloques.

Tiran la casa Tantarrene (Vista Alegre) para parque de entrada y en Oxigraf levantan un bloque y la entrada a la calle que subiría en zigzag hasta las casas de La Cantera, con otros cuatro bloques de viviendas a ambos lados de la calle, y un bloque de equipamientos pegante a las casas de La Cantera. Hay otro parque entre los bloques de la zona alta.

El ascensor de servicio a Ermita Bidea estaría colocado a la altura de Gure Izarra, con salida al callejón. Para llegar a él habría que subir por una escalera pegante al camino o por acera a lo largo de la nueva calle que proyectan.

Sobre los 5.000 m² de zona verde que están obligados a crear, pero que "no les cabe aquí" y planeaban llevárselos a Igeldo, se mostraban abiertos a buscarles una ubicación en Altza, pero no saben dónde. Citaron Milles/Miravalles, cerca del casco. Sin duda podríamos intervenir desde la Junta para señalar el lugar más idóneo, de acuerdo a nuestra opinión.

Nuestro interés en convertir en un centro cultural a OXIGRAF, parece una causa perdida. Se habla de equipamientos sociales y culturales importantes, pero la forma de ponerlo encima de la mesa es evasiva y sin fijar características. Responda a la famosa idea -peligrosa, por cierto- de "ya se verá más tarde".

COMENTARIOS.- Creo que ha sido una presentación con medias palabras y medias intenciones. Se ha hablado de VPOs, de 85 m² y pisos de venta libre de 100m²., de equipamiento público importante, pero de forma ambigua, recordando que el uso que se dé queda fuera de esta primera fase y que no depende de los redactores del proyecto. La Concejala no dice nada. Han venido a defender sus decisiones y no tener en cuenta nuestros argumentos.,

Nos ha parecido especialmente rechazable el argumento de la Concejala sobre los puestos de trabajo cuando todos sabemos que una empresa tiene otros motivos para quedarse, marcharse, y hacer lo que les pueda interesar, sobre todo económicamente. Lo vemos todos los días. El condicionar una cosa a la otra, nos coloca a todos en una situación en la que parece que todo lo que se haga, tras la exposición de esa idea de "salvamento" de los puestos de trabajo, tiene que ser aceptado, perjudique o no a la población, al entorno y al futuro de Altza.

No está nada claro como queda la actual conexión de las casas de la Cantera (Jose Manuel enea, etc.) con la Calzada de San Ignacio, tras los edificios de Larrerdi. Debemos recordar que cuando hicieron las casas en el recinto de Rutilita, la constructora intentó cerrar el camino. Herripe intervino pero no se pudo evitar que se devolviera el camino bastante más estrecho de lo que era en origen.

Convendría que la Junta de Distrito se impusiera para intervenir de una forma más decisiva en el desarrollo del proyecto, y sus conexiones, teniendo en cuenta que, según parece, hay muchas cosas que están aún sin definir, tal y como se deduce de lo poco preciso en esta reunión.

Ekialdeko Barrutia: Sei urteko lana ¿Noruntz goaz?

Distrito Este: Seis años de trabajo ¿Hacia dónde vamos? (📄)

2023/04/26

Elkarteak BAI

A dierazpen honek bi legealdi hartzen duten sei urte hauetan Ekialdeko Barrutiko organoaren dinamikan zuzenean (Barrutiko Batzarraren eta bere Lantaldeen bidez) edota zeharka (parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko beste espazio batzuen bitartez) parte hartu eta osatu dugun elkarteetatik egiten dugun ebaluazioaren zati bat jasotzen du.

LABURPENA

Balorazio positiboa

- Hainbat diagnostiko kuantitatiboak eta kualitatiboak egin dira.
- Auzo-elkarteetako eskaera historikoei erantzun zaie.
- Emakumeen memoria eta ahalduntzea sustatzeko jarduera nabarmena egon da.
- Altzako Udalaren eta memoria historikoari dagokionez aitopen garrantzitsuak egin dira.
- Euskararen ikaskuntza eta erabilera eta kultura-integrazioa sustatzen dituzten jarduerak babestu dira...
- Ahalegina dago Barrutiaren beraren barne-dinamika sendotzen saiatzeko.

Balorazio negatiboa

- Udal Departamentu gehienekin komunikazioa eta lanaren funtzionamendu eskasa.
- Lortutako emaitzen ikusezintasuna.
- Lan karga astuna elkarten ordezkarien gain.
- Herritarrekin eta gainerako elkarteekin komunikaziorik ez izatea.
- Herritarren parte-hartzerako sustapen hutsala..
- Barne funtzionamenduak parte hartzaileen nekea ekarri du.
- Elkarte sinatzaileok uste dugu Ekialdeko Barrutiaren instituzionaltasuna hobetu behar dugula, esumenak, parte hartzeko kultura, eraginkortasuna eta gaitasuna indartuz.

Oro har, transmititzen ditugun sentazioak ez dira gozoak. Ekialdeko Barrutiko mahaiak, gure ustez, bere xedeak lortzeko espazio eta mekanismo baliagarriak eskaini ditzake: herritarrek gai publikoetan duten parte-hartzea sustatu eta indartzea, herritarren eta talde antolatuen beharrak eta lehentasunak modu zehatzagoan eta zuzenagoan identifikatuz tokiko erakundearen praktikotasuna fintzea, eta horrekin gastu publikoa eraginkortasunez murriztea. Batzarrak herritarren beharrei eta ekimenei erantzuteko organo bat eskain dezake, ordezkari politikoen eta elkarten arteko hurbiltasun-mekanismoak sortuz eta, horrela, deliberazio-gune propioen eta baliabide propioen bidez, Barrutiko auzoetan Udalaren praktika instituzionala deskontzentratzea



lortuz. Gainera, hau ere esan beharra dago, Batzordearen eta Lantaldeen mahaia osatu duten pertsonen taldea lan izugarria egin du, beren auzoekiko eta aldarrikapen partikularrekiko konpromiso handia erakutsiz: adin, sentsibilitate eta ekintza-eremu askotako kideak, komunitate-ekintzan esperientzia dutenak eta interesik gabe lankidetzan aritzeko interesa erakutsi dutenak.

Bi legealdi horietan lortu diren emaitzak, Ekialdeko Barrutiko organoen lanagatik izan ez balitz, ez ziratekeen gauzatuko: Ekialdeko Barrutiko auzoetako diagnostiko kuantitatiboak eta kualitatiboak egin dira, plaza eta gune nagusietan hirigintza-jarduerak egin dira, alde zurretatik parte hartzeko prozesuak gehitu dira, auzo-elkarteetatik etorritako eskaera historikoei erantzun zaie, emakumeen memoria eta ahalduntzea sustatzeko jarduera nabarmena izan da, kultura-jarduerak lagundu dira, Altzako Udalaren aintzatespen historikoa sustatu da, memoria historikoari buruzko beste aintzatespen garrantzitsu batzuk egin dira, euskararen ikaskuntza eta erabilera eta integrazio kulturala sustatzen duten jarduerak finantzatu dira... eta, horrez gain, Barrutiaren beraren barne-dinamika eratzeko etengabeko ahalegin eta saiakera kolektiboa egin da.

Oraindik ere agerikoa da, ordea, Ekialdeko Barrutian herritarrek parte hartzeko duten argitasun, ordena eta erraztasun falta. Barne-funtzionamenduak desilusionatu eta higitu egiten du batzutan, eta horixe da egin nahi genukeen adiearazpena. Organo honekin bilatzen dena lortzeko ebatzi beharko liratekeen funtsezko alderdi batzuk aipatzen dira jarraian:

- Erakundeekiko bitartekariak: Batzarkideen eta Udaleko sailtako erreferentziazko funtzionarioen arteko harremana ez da batere eraginkorra, eta batzuetan badirudi haien funtzioak oztopatzen ari direla, lanez lepo egoteagatik eta Barrutiko ordezkariari ematen zaie lehentasun faltagatik (salbuespenak albuespen, Berdintasun Saila esate baterako).
- Dokumentu eta artxibo publikoen eskuragarritasuna: Batzarraren eta lantaldeen eginkizunak garatzeko beharrezkoa den dokumentazioaren errekerimendua askotan ez da behar bezala betetzen.
- Egutegia eta barne-plangintza: Barrutiko Batzarraren ekintza instituzionala planifikatzea, presaka eta korrika funtzionatu beharrean, bere barne-funtzionamendua aurreikusteko eta errazteko moduan. Oraindik asko dago egiteko zentzu horretan.
- Bileretako dinamika: Bileren eraginkortasuna hobetu

tzea garrantzitsua da, eta horretarako bidelagun baten laguntza teknikoa izatea alde egin dezake, herritarren denbora eta borondatezko ahalegina ahalik eta modu eraginkorrenean baliatzeko.

- Barne-funtzionamendua sendotzea: Barrutiaren funtzionamenduaren oinarritzko prozedurak sistematizatu gabe daude, eta prozedura horiek erakundearen funtzionamendua egituratzen dute; are gehiago, prozedura horietako batzuk alde batera uzten dira, eta ez dira prozedura horiek hobetzen ahalegintzen.
- Aktak erregistratzea eta jasotzea: Akta jasotzeko eta laburpenak egiteko lanak elkarreterako kide diren batzarkideen sorbalden gainera doaz gehienetan, eta hori aparteko ahalegina da.
- Jarraipen falta: Batzarkideok ez dugu ia eguneratzerik jasotzen bere baitan sustatu diren proiektuen garapenari buruz, batzuetan proiektuaren erreferentziatzeko pertsonak berak ere ez. Horrela, galdu egiten da esfortzu eta emaitzaren arteko lotura, eta hurrengo kasuetarako baliagarriak diren ikaskuntzak ere.
- Azken likidazioen berri ez izatea: Salbuespen gutxi batzuk salbu, batzarretik ez da sustatu diren proiektuen azken gastuen berri ematen, eta horrela, ezin zehatz-mehatz jakin zenbateraino asmatzen den aurreikusitakoarekin, zenbat diru sobratu den edo faltatu delako udaleko sailak jarri behar izan duen.
- Parte-hartzearen kultura: Ia ez da existitzen Batzordeko kideei prozedura administratiboaren inguruan sensibilizatzeko pedagogiarik, eta herritarrek erakunde publikoen denbora eta egiteko moduetara egitea da erraza laguntzarik gabe. Horrela, gainera, Barrutiko Batzarreko parte-hartzea demokratizatzen da.
- Auzoen mugaketa eta izendapena: Udalak, Barruti barruan eremu nagusiak bereizteko sortu dituen "auzoen" banaketa eta izenak irizpide administratibo hutsari jarraitzen dio, lurraldean betidanik eta modu naturalean sortu eta erabili diren berezko banaketari muzin eginez. Horrek, lurraldean modu orekatuan eta eraginkortasunez ekitea oztopatzen du.
- Batzarraren azken xedea: Era berean, ez da organo honen amatezko helmugaz eta desiozko funtzionamenduz inongo proiektuorik egiten, ezta oinarrietan babesten diren printzipio eta filosofiak gogora ekartzen.
- Herritarrekiko eta beste elkarreterako komunikazioa: Herritarrei Batzarraren eta Lantaldeen lanen berri emateko sortutako baliabideez egiten den erabilera ez dago batzarkideen aldetik guztiz baliozkotua, eta batzuetan badirudi erabilera hori beste interes batzuekin nahasten dela, Barrutiko Batzarraren berri eman eta bere erakundetzeari alde egin beharrean.

Barneratutako dinamika horiek aldatu behar dira, Ekialdeko Barrutiak parte-hartze eraginkorreko eta iraunkorreko benetako kultura ahalbidetu dezan; izan ere, informazioa oztopatzeagatik sortzen den gogaitasunak, sailen arteko lankidetzaz-ek, hartzen diren administrazio- eta idazkaritza-lanen zamak, bidelaguntza- eta dinamizazio-ek, lortutako fruituen ikusezintasunak, alderdien hauteskunde-interesek Batzordearen

jardunbidea lohitzeko... erakunde publikoekiko eta inguruan dauden interes-taldeen dagoen mesfidantza areagotu besterik ez du egingo, eta bizilagunen elkarreteratze-gaitasuna ahuldu, eskualdea elkarrekin batera aurrera egiteko beste aukera bat galdu, herritarren ekarpena barnebilduz gauzak errazteko beharrezkoa den egituraketan indarra jarri beharrean.

Udal Gobernu berriak, elkarreterko partaidetza-organoren horri egiten dizkiogun errekerimenduei erantzuna eman beharko lieke. Horretarako, batzarkideak bileretako aktak idazteko lanetatik askatzeko konpromisoa hartu beharko luke, sailekiko lotura instituzionalak optimizatzea, batzarkideek eskatutako informazioa partekatzea urtebetez baino gehiagoz behin eta berriro eskatzen aritu behar izan gabe, Barrutiko auzoen barne-banaketa zentzuz eta modu adostutan zatitzea euren arteko ezberdinketa zentzugabeak sor ez daitezten, Batzordearen tempusak, formak, dinamikak, sortzen ari diren aurrekariak, helburuak, filosofia... islatuko dituen material grafikoak sortzea, batzarkideei ez ezik, Barrutiko herritar guztiei ere aurrerapenen berri emateko balioko lukeena, informazioa emateko beste asmorik gabe eta, guzti horretarako, beharrezkoa balitz, teknikari gehiago kontratatuz.

Azken finean, Ekialdeko Barrutiko praktika instituzionala hobetzea da nahi duguna, partaidetzaren, eraginkortasunaren, konfiantzaren... kultura indartuz. Noiz, eta esperientzia instituzional txarrek herritarrek adoregabatu eta, gainera, ordezkarien funtzioa gutxies-tera eramaten den garai honetan.

Sinatzaileak: AHM - Altzako Historia Mintegia, Altzania, Emanhar, Intxaurren Berri Emakumeen Elkarreterak, Plazandreak, Auzo Elkarreterak (Bideak, Elkartasuna, Herripe, Osteguna, Oleta, Lodabe, Izbe, Buenavista)

Discursos ambiguos en las elecciones municipales y forales

2023/05/25
Osteguna Auzo Elkarreterak

Esta vez tampoco ha podido ser. No hemos oído nada concreto, nada comprometido. Sólo promesas ambiguas que encajan muy bien en esa opinión que a algunos nos inquieta tanto: "da lo mismo, nada va a cambiar, esté quien esté."

Pero está claro que algo tiene que cambiar, quizá la línea de actuación de quienes puedan repetir, quizá las nuevas tendencias de quien accede a la gestión de un ayuntamiento o de la Diputación. Pero prometer, lo que se dice prometer, nadie ha prometido. Y eso tenemos que tener bien en cuenta a la hora de votar.

